

ESKOLAUMEEN

LITERATUR LEHIAKETA 2012

ORIO



Orioko Udala

Azala: Marina Zaldúa
Legezko gordailua: SS 477/88
Inprimaketa: Bizker grafikak (Lasarte-Oria)

AURKIBIDEA

Hitzaurrea. <i>Jon Agirresarobe</i>	5
Aita eta ama. <i>Ugaitz Astigarraga</i>	7
Txomin, Txomin. <i>Jon Eizagirre</i>	7
Banpiro hegalaria. <i>Oier Amilibia</i>	9
Itsasoa eta piratak. <i>Aimar Arruti</i>	9
Hau da burua. <i>Ander Agirre</i>	11
Itsasoa. <i>Nora Bereziartua</i>	11
Pirata maltzurra. <i>Martin Alberdi</i>	13
Martin txindurria. <i>Maxe Zinkunegi</i>	13
Tximeleta. <i>Marwa El Ghailani</i>	17
Amatxoren urtebetetzea. <i>Ibai Lizarralde</i>	17
Sorgin hezur hutsa. <i>Ana Manterola</i>	19
Krokodilo bat Egipton. <i>Suany Soriano</i>	21
Neure amona. <i>Ibai Aranguren</i>	23
Uda. <i>Elene Ostolaza</i>	23
Amaiaren familia. <i>Johanes Agirre</i>	25
Harria eta arroka. <i>Nahia Uranga</i>	27
Laguna. <i>Mafalda Lertxundi</i>	31
Komeriak. <i>Mikel Lizarralde</i>	31
Piramidearen digestioan galduta. <i>Maria Iparragirre</i>	33
Biolina. <i>Mafalda Lertxundi</i>	35
Orio. <i>Eneko Eizagirre</i>	41
Ez zintudan sortu nahi. <i>Maidier Uranga</i>	45
Ilargiaren bila. <i>Ania Amilibia</i>	47
Momien armada. <i>Maialen Aramendi</i>	49
Uxo zuriak. <i>Ane Colado</i>	53
Beti elkarrekin. <i>Naroa Miralles</i>	53
Bizitza desberdinak. <i>Alazne Arriola</i>	55
Gaueko hamabietako asasinatzea. <i>Ane Colado</i>	59
Maitasuna ote? <i>Olatz Dorronsoro</i>	65
Nire olerkia. <i>Leire Izagirre</i>	65
Marta. <i>Paula Argintxona</i>	67
Bizitzaren hautaketak. <i>Ione Zinkunegi</i>	71
Egunerokoa. <i>Andoni Garate</i>	77
Unaxen lehen abentura. <i>Mikel Orbañanos</i>	87
Olerki triste bat eskuetan. <i>Alazne Arruti</i>	93
Ipuin bat ordu betean izkiribatzeke. <i>Iker Lopetegi</i>	95
15 urte ditut... <i>Xabier Makazaga</i>	97

Hitzaurrea

Esku artean ditut hogeita lau liburuak. Agurretara joan naiz lehenbizi, ohituraz. Liburutegian bibotea eta bizarra jarrita agertzen dira denak. 1986koan Rikardo agertzen da epaimahaia zorionduz euskararen aldeko egitasmo hauek garrantzitsuak direla esanez. Amaiak bere etxeko telefonoa jarri du agurrean, badaezpada. Ondoren ikusi dut Haritz, bere ipuina hautatzeaz gain futbolearen ere saria eman ziotela *el mas destacado* izateagatik. Nire adin bueltakoak seigarren liburuan agertzen hasi dira: urtero irabazten zuen bertsolari betaurreko handiduna, eta bere anaia txikia. Urterokoa zen Jon Gaztañazpiren ipuina ere; koadrilakoek buruz dakizkitez istorioak.

Hogeita bosta ez da nobedade. Ume garaia eta haurtzarora, horixe biltzen du sanpedroetako opariak. Gazteenak natura ari dira deskubritzen: *Oria ibaian arrainak salto-salto* diote. Ondoren, piratak eta estralurtarrak hartu ohi dute gure herria 25 eta 35 orrialdeen artean; zer den imajinazioa topera izan eta derrigor idatzi beharra. Baina gero dator gogorrena: maitasunaren garaia. Lerroak eta lerroak, zu eta zu. Kandela. Tartean-tartean, bakarren bat oraindik maitemindu ez bada, saria irabazten du kritika soziala dakarren hitz neurtuak: *umetan esaten ziguten bizitza zoragarria zela* idatziz.

Zer uste zenuten bada, bizitza zoragarria zela? Horretarako, beharrezkoa zaigu hitzak ondo artikulatzen ikastea. Horretarako, beharrezkoa da orri zuriaren aurrean jarri eta idatzitako lerroak ezabatzea. Idaztea ez baita dena literatura, bizitzan bezala. Artikulatu behar dugu maitasuna, haserrea. Hitzez edo idatziz. Horretan laguntzen digu literatur lehiaketak, irabazleei eta liburutik kanpo gelditu izan garenoi ere bai.

Itzaleko zein ekimenek betetzen ditu, gure herrian, hogeita bost urte? Itzalekoa diot, idaztea bakarrik eta argi gutxirekin egiten dugulako. Idatzi, nor berarentzat idazten da, nahiz eta tarteka besteek irakurtzeko aukera eman. Gazte segi idazten, nor berarentzat, denontzat, beste hogeita bost urte. Hori bai, Euskaraz gazte!

Jon Agirresarobe, euskara zinegotzia

Aita eta ama


Hegan, hegan, hegan...
gura aita dabil dantzan.
Hegan, hegan, hegan...
txoria bezala plazan.
Hegan, hegan, hegan...
gure aita dabil dantzan.
Hegan, hegan, hegan...
ama etortzeko esperantzan.

Ugaitz Astigarraga

Txomin, Txomin

Txomin, ipurdia zikin.
Txominen aitona,
Martin.
Martinen bastoiak
Txomini ipurdian
'tin-tin'.
Martin eta Txomin,
ipurdi garbiarekin,
etxera doaz
elkarrekin.

Jon Eizagirre



Irene Alberdi

Banpiro hegalaria

Bazen behin banpiro bat, oso ona zena hegan egiten. Askotan, gosea zuenean, hegan joaten zen, goitik ikusitako ume bat aukeratzen zuen eta bere ondotik hegan pasatzerakoan... krausk! jan egiten zuen!

Egun batean, hegan ari zen banpiroa eta gosea sentitzen hasi zen. Han goitik ume bat aukeratu zuen eta beregana gerturatzen hasi zen. Bere ondoan zegoenean, jateko prestatzen hasi zen; baina umeak, buelta eman eta... krausk! berak egin zion koska banpiroari.

Banpiroa asko harritu zen, baina arraro sentitzen hasi zen. Umearen horzkadarekin banpiroa gizon bihurtu zen. Ondoren, neska jator bat ezagutu zuen eta ezkondu egin ziren.

Oier Amilibia

Itsasoa eta piratak


Orain dela urte asko, bazen pirata talde ospetsu bat. Pirata hauek egunero itsasoan egoten ziren, jendeari lapurtzen eta beste pirata batzuk ikaratzen.

Egun batean itsasora salto egitea erabaki zuten, uste zutelako berak zirela itsasoko izakirik arriskutsuenak. Uretan marrazoak zeudela bazekiten, baina ez zieten beldurrik arrain handi haiei.

Baina, uretara salto egin bezain pronto, marrazoek barre egin zuten eta pirata guztiak jan egin zituzten inolako arazorik gabe.

Marrazoak barre eginez aldendu ziren handik eta gizakiak tontoak zirela pentsatu zuten.

Aimar Arruti



Eneko Gaztañaga

Hau da burua!


Ai! Gauzak ahaztu zaizkit.
Ene! Etxeko lanak ez ditut ekarri.
Ai! Nora goaz oporretan?
Hori ere ahaztu zait.
Ai, ama! Ikastolara joatea ahaztu egin zait.
Nork konponduko du arazo hau?
Sendagilearengana joango naiz...
ahazten ez bazait.

Ander Agirre

Itsasoa

Haizea itsasoarekin dabil jolasean.
Orduan olatua sortu da.
Olatuak *splash* egin du.
Hartu du indarra eta hondartzara iritsi da.
Urez bete du dena.
Garbi-garbia geratu da.
Eguzkiak hondartza lehortu du.
Olerki hau honela bukatu dut.

Nora Bereziartua



June Iradi

Pirata maltzurra

Bazen behin pirata maltzur bat. Bere marinelekin eta bere belaontziarekin beti lapurretan zebilen. Baina pirata hari ez zitzaizkion altxorrak gustatzen, ez. Beste piraten belaontziak lapurtzea gustatzen zitzaion.

Horrenbeste belaontzi zeuzkan, ez zekiela zer egin berekin. Pentsatu eta pentsatu, azkenean, belaontziak banatu behar zituela konturatu zen. Baina beste arazo bat zuen: ez zekiela belaontzi bakoitza norena zen eta, gainera, garai hartan ez ziren telefonoak existitzen.

Piraten artean mapa bat egin zuten, belaontzi bakoitza gordeta non zegoen jakiteko. Piraten artean mapa banatu eta, horrela, pirata bakoitzak bere belaontzia non zegoen gordeta jakin ahal izango zuen.

Eta hau hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Orioko plazan.

Martin Alberdi

Martin txindurria

Bazen behin txindurri bat, basoan bizi zena eta Martin izena zuena. Txindurri umea zen, baina aita eta ama hilda zituen. Martin txindurri beltza zen. Egun batean, basotik paseatzen zebilela, koloretako makil bat aurkitu zuen. Makila magikoa zen, baina Martinek ez zekien magikoa zenik. Martinek makila hartu eta etxera joan zen. Etxera iritsi zenean, triste esan zuen:


—Nire aita eta ama bizirik egotea nahiko nuke!

Eta, orduan, makila magikoak magia egin eta aita eta ama bizirik agertu ziren.

Orduan, Martin konturatu zen makila magikoa zela, eta makilari esan zion:

—Eskerrik asko!

Eta ama, aita eta Martin poz-pezik jarri ziren eta lagunengana joan ziren denak. Bidean, aitona eta amona ikusi zituzten. Amona eta aitona harrituta geratu ziren. Aitonamonak berekin batera lagunengana joan ziren. Denak batera jolastu ziren eta oso ondo pasa zuten. Gaua heldu zen eta ohera joan ziren.



Beñat Uranga

Gauean haizeak eraman zuen makila magikoa. Martin, ama eta aita esnatu zirenean, harrituta geratu ziren. Jateko zerbaiten bila joan ziren eta lurrean makila magikoa ikusi zuten, baina lur azpian sartuta zegoen. Ateratzen saiatu ziren, baina ezin zuten atera.

Orduan, barraskilo bat pasa zen eta txindurriek esan zioten:

—Lagunduko al diguzu makil magikoa ateratzen?

Barraskiloak baietz esan zien, baina ezin izan zuen atera.

Halako batean, txakurtxo bat pasa zen eta txindurriek eta barraskiloak esan zioten:

—Lagunduko al diguzu makil magikoa ateratzen?

Eta txakurrak esan zien:

—Bai!

Baina txakurtxoak ere ezin izan zuen.

Orduan, txerri bat pasa zen eta txindurriek, barraskiloak eta txakurtxoak esan zioten:


—Lagunduko al diguzu makil magikoa ateratzen?

Txerria hasi zen makila hartzen eta, azkenean, lortu zuen.

Orduan, makil magikoak opariak eman zizkien.

Handik aurrera, Martin poz-pez bizi izan zen amatxorekin eta aitatxorekin.

Maxe Zinkunegi



Joana Lertxundi

Tximeleta

Tximeleta,
zure hegalak,
kolorez beteta,
goiz-goizetik hegan.

Deskantsatu egin
behar duzu
eta bidea jarraitu.

Udaberria iritsi da
eta ni, kolorez beteta,
goiz-goizetik eskolara,
arratsaldean parkera,
eta oportretan kalera.


Deskantsatu egin
behar dut
eta bidea jarraitu.

Marwa El Ghailani

Amatxoren urtebetetzea

Igande arratsean ospatu genuen amatxoren eguna.
Afari goxo batekin disfrutatu genuen
amaren poza. Hasi zen dantza batean;
aita, zuk gerritik heldu zenion
eta gu denok txaloka aurrean.
Umorerik ez zen falta han barrenean,
gonbida gaitzala berriz hurrengo urtean.

Ibai Lizarralde



Candy Ostolaza

Sorgin hezur hutsa

Sorgin hezur hutsak Pepa izena du eta Kukuarrin bizi da, gurutzearen ondoan, sasiak dauden lekuan. Pepa hezur hutsa da. Horregatik, ezin du pentsatu. Beti goseak dago. Behin batean sorgin gaizto batek barrutik hustu zuen eta hezur hutsean geratu zen. Beti esaten du:

—Jango nuke, jango nuke...

Eta gaixotzen ere hasi da. Ez da gogoratzen Orion litxarkeria asko daudela Olatun, Goxokin, beste Goxokin eta abar.

Sorgin hezur hutsa oso itsusia da. Erratza dauka eta erratz horrek hegan egiten du. Gauero, 00:00etan hegan ateratzen da ilargiarekin batera.

Igande goizetan, familiak oinez Kukuarrira etortzen direnean, Pepari bere erratzarekin jendea izutzea gustatzen zaio. Kukuarrira etortzen direnean familiak bokadiloarekin, Pepa zelatan egoten da eta, paseora joaten direnean, Pepak bokadiloak lapurtzen dizkie eta jaten hasten da.

Behin batean, horrelaxe, familia bati ogitartekoak lapurtu zizkion. Familiak esan zuen:

—Eta gure bokadiloak non daude? Poliziari deituko diogu!

Halako batean, Pepa ikusi zuten, bere erratzaren gainean, ogitarteko guztiekin.

—Gure ogitartekoak, gure ogitartekoak! —oihukatu zuten.

Pepa azkar-azkar ezkutatu zen sasi artean.


Nahikoa jan zuen, baina Pepa bakarrik sentitzen zen, lagunik gabe. Baina igande hartan mutil bat etorri zen Kukuarrira. Ezagutzen zituen Peparen gaiztakeriak eta gus-tukoak zituen, bera ere antzekoa zelako eta esan zion:

—Nahi duzu nirekin ezkondu?

—Bai!

Orioko elizan ezkondu ziren eta poz-pez bizi izan ziren.

Ana Manterola



Eider Perez

Krokodilo bat Egipton

Bazen behin Miren izeneko neska bat. Neska oso gaztea zen eta, horregatik, bere gurasoekin bizi zen. Oso pozik bizi zen. Miren Egiptokoa zen. Egipto oso handia da. Miren Nilo ibaiaren ondoan bizi zen. Bere herriak Alexandria zuen izena. Alexandria berde-berdea zen, Nilo ibaiaren ondoan ura zegoelako, eta ura behar zutelako baratzak izateko. Baina herri hartan ez zen bizi jende asko, ibaiaren ondoan krokodilo asko bizi zirelako.

Miren neska altua zen, zuhaitz bat bezain altua. Hamar urte zituen, baina oso altua eta argala zen. Ilegorria zen, udazken koloreko ilea zuen. Bere begiak belarraren kolorekoak ziren, berde argiak. Miren oso neska polita zen eta oso txintxo. Bere familiarekin eta lagunekin oso ondo portatzen zen. Etxean oso obedientea zen; zerbait errotera joateko amak esaten zionean, berak ekartzen zion, protestatu gabe. Beti soka saltoan jolastea gustatzen zitzaion.

Baina Mirenek sekretu handi bat zeukan: haserretzen zenean, krokodilo bihurtzen zen. Miren, krokodilo bezala, oso-oso gaizto portatzen zen.


Egun batean, Miren jolastera joan zen bere lagunarekin. Soka saltoan jolasten ari zirenean, Miren haserretu egin zen eta krokodilo bihurtu zen. Bere lagunak, krokodilo itsusia eta erraldoia ikusi zuenean, korrika joan zen eta amari kontatu zion krokodilo bat ikusi zuela eta Miren zela.

Miren etxera bueltatu zen; baina, oraindik haserre zegoela-eta, egun guztia krokodilo bezala bizi izan zen, ez zen neska bihurtzen. Bere gelan sartu zen. Ez zuen atera nahi eta bere familia oso kezkatuta zegoen, ez zuelako atera nahi.

Hurrengo egunean, Miren ohean zegoen lotan, oraindik ere krokodilo bihurtuta. Bere ama oso kezkatuta zegoen eta Mirenen gelara sartu zen, esnatzeko. Manta kendu zion eta krokodilo bat ikusi zuen amak. Amak pentsatu zuen krokodiloak bere alaba jan zuela eta negarrez hasi zen. Krokodiloa, ama horrela ikusi zuenean, neska txintxo bihurtu zen oster. Gero, amarengana joan eta esan zion barkatzeko.

Geroztik, txintxo portatu zen eta ez zen berriz krokodilo bihurtu. Bere lagunaren etxera ere joan zen eta barkamena eskatu zion. Hortik aurrera, pozik bizi izan ziren eta jende asko ikusi zuten Nilo ibaiaren ondoan.

Suany Soriano



Maxe Zinkunegi

Neure amona


Neure amona maitea
atzo joan zen zerura,
harekek bai eman zidan
pena eta tristura.
Bere irribarre goxoak
gogoratzean bera,
ekartzen dit benetako
poza neure barrura.

Ibai Aranguren

Uda

Uda, a zer nolako beroa!
Herri guztia oporretan doa
beste herri batera.
Lagunekin ondo pasatzera,
hondartzan eguzkia hartzera,
hotel batean goxo egotera,
izozki-postuetako izozkiak dastatzera.
Futbolean jolastera,
limoi zukua edatera,
familiakoak bisitatzera,
kaleetan pozik paseatzera.

Elene Ostolaza



Mirari Begiristain

Amaiaren familia

Amaia 8 urteko neskatxa bat da. Ilea eguzkiaren kolorekoa du; begiak, zelaiak bezain berdeak; sudurra, berriz, txiki-txikia du; eta txokolatea oso gustuko du.

Amaiaren gurasoak kirolzaleak dira. Horregatik, egunero, etxean jateko zerbait patatekin dago eta Amaia haserretu egiten da.

Egun batean, amorratuta, egongelara joan zen telebista ikustera. Tom eta Jerry ikusten zegoela, iragarkiak botatzen hasi ziren, eta bat-batean Milka txokolate berria azaldu zen. Amaia builaka hasi zen:

—Aita! Ama! Zatozte hona, iragarki hau ikustera!

Hurbildu zen aita eta tratu bat egin zuen Amaiarekin:

—Txokolatea erosiko dizut; lanak eta agindutakoa egiten duzun bakoitzean, ontza bat emango dizut —esan zion aitak.

Hurrengo egunean bi gurasoak gimnasia joan ziren. Amaiak aprobetxatu zuen txokolate pixka bat jateko; baina, armairuko kajoia ireki zuenean, konturatu zen txokolateari zatitxo bat falta zitzaioela. Horman, zulo txiki baten inguruan, txokolate arrastoak ikusi zituen; baina han ez zegoen inor.

Gurasoak etxera bueltatu ziren eta txokolatea janda ikusi zuten. Errua Amaiari bota zioten eta zigortu egin zuten.

Amaia sagua harrapatzen saiatu zen behin eta berriro, baina egun hartan ez zuen lortu.

Hurrengo goizean txokolatearen aurrean tranpa jarri zuen. Sagua ez zen tontoa, Amaiaren panpina tranpan jarri zuen eta, lasai asko, txokolate puska ederra jan zuen.

Amaiak egunero-egunero jartzen zion tranpa, baina sagua ez zen erortzen.


Egun batean sagua txokolatearen aurrean lo seko gelditu zen eta Amaiak, sagu txokolate zalea eskuetan hartu, eta gurasoei erakustera joan zen. Amak izugarritzko oihuak bota zituen eta sagua amaren builekin esnatu eta ihes egin zuen.

—Aita, ikusten? Ez zenidan sinesten, baina txokolatea saguak jan du.

Orduan, aitak katua erostea erabaki zuen.

—Oraintxe bertan, noa katu baten bila! Esan zuen aitak.

Handik ordubetera aita Pitxirekin etorri zen. Pitxi ez zen katu dotorea; baina oso maitagarria eta, sagua harrapatu beharrean, lagun minak egin ziren.



Alaine Garro

Orduan, katuak honela esan zion saguari:

—Nirekin bizi nahi al duzu etxe honetan?

—Bai, bai, ni zurekin oso ondo bizi naiz eta! —erantzun zion saguak.

—Beno! Ba, hemendik aurrera, ez duzu janaririk lapurtuko; biok niri ematen didatena jango dugu.

—Ados nago —erantzun zion saguak.

Eta biok, besarkada handi bat emanaz, egin zuten tratua.

Johanes Agirre

Harria eta arroka

Bazen Orioko itsasertzean arroka handi-handi bat, Tartalo baino erraldoiagoa eta Aizkorriko haitzak bezain gogorra.

Gauean kolore iluna hartzen zuen; egunez, gris argiko kolorea zuen; eta, eguzkiak jotzen zuenean, zilarra bezain distiratsua jartzen zen.

Arrokaren oinean harri bat zuen, itsatsita. Harria zartaduraz josita zegoen.

Harri hura Aizkorrin sortua zen, Oria ibaia hasten den tokian, eta hau da bere historia.

Egun batean, artean Aizkorrin zegoela, ibaiko ura indartsu zetorren eta harria bere lekutik askatu zen; uraren indarrarekin menditik behera etorri zen. Ibaiaren bidean zulo batean trabatuta gelditu zen. Gaua iritsi zenean, zerbait jarri zitzaion gainean; ez zekien zer zen, baina gustura zegoen, kilimak egiten zizkiolako. Azkenean, galdetu egin zion:


—Nor zara?

—Ni amuarraina naiz. Egunero etortzen naiz txoko honetara lo egitera. Eta zein zara zu?

—Ni Aizkorriko harri bat naiz; urak ekarri nau hona.

Horrela, biak lagunak egin ziren eta, gauero, elkarrekin lo egiten zuten.

Aste batzuetara Euskal Herrian uholdeak egon ziren. Ibaia izugarri hazi zen eta harria, uraren indarrarekin, zulotik atera zen eta, dinbili-danbala, latak, plastikoak eta botilak zeuden txoko batera heldu zen. Han plastiko artean korapilatuta gelditu zen.



Janire Herranz

Bere ondotik korrokoa pasatu zen. Ez zuen itxura onik eta harriak galdetu zion:

—Gaixorik al zaude?

—Nola ez naiz egongo, hemen dagoen zikinkeriarekin? —erantzun zion korrokoia.

Handik aurrera lagunak izan ziren. Jolasten egoten ziren, baina korrokoa gero eta makalago zegoen. Zikinkeria artean ezin zuen arnasarik hartu; hil zorian zegoen. Harria kezkatuta zegoen.

—Zerbait egin behar dugu zu sendatzeko —esan zuen harriak.


Hortaz hitz egiten ari zirela, bi pertsona etorri ziren eta ibaiko zikinak jasotzen hasi ziren. Plastikoak kendu zituzten eta, orduan, harria mugitzen hasi zen. Itsasorantz zihoala, pena handiarekin, korrokoa agurtu zuen.

—Agur, lagun! Lasai joan! Orain ur garbiarekin sendatuko naiz eta! —esan zion korrokoia.

Harria itsasora heldu zenean eta arroka handia ikusi zuenean, betirako haren ondoan gelditu zen.

Hala bazan edo ez bazan, han dago harria arrokan.

Nahia Uranga



Maria Orlando

Laguna


Ilunpean kateaturik nagoenean, argia bilatu,
barruan daramadan lore zimela ureztatu,
nire biolinaren melodia tristeak alaitu,
etxeko pertxan ilusioa zintzilikatu,
asmo txarrak uxatu,
amets gaziak gozatu,
nire iturriko ur zaharra berritu,
penaz blaiturik nagoenean lehortu,
neguan hotzez dardarka nagoenean berotu,
nire bihotzetik datozen galdera zailak askatu.
Bejondeizula, lagun!

Mafalda Lertxundi

Komeriak

Eskolara noa
Anttonekin,
bizikletan goaz
kañaberarekin.
Aitona dago
bastoiarekin,
apurtu diot
gurpilekin.
Ostik ematen
hasi zait,
nik esan diot:
lasaituai!
Eskolan, berriz,
irakasliakin
haserre bizian
olerki honekin.

Mikel Lizarralde



Gorka Amas

Piramidearen digestioan galduta

Baziren behin bi lagun esploratzaile, Cleo eta Leo, eta beren lana egiten laguntzen zien txakur bat zuten, Kroki izenekoa. 1600. urte inguruan bizi izan ziren.

Behin Egiptora joan behar zuten, galdutako piramide bat aurkitzera eta esploratzera.

Hala, ba, egun batean, Egiptorantz abiatu ziren ontzi batean. Iristen ari zirela, Nilo ibaian barrena sartu ziren. Bidaia osoan lo egin zuten, energiaz borborka zeuden denak, Leo izan ezik, krokodiloen beldurra baitzuen.


Orain azaltzera noan egun hartan, piramidea bilatzen hasi ziren, baina ez zuten inongo arrastorik aurkitu. Basamortu zabal eta lehor batean galdurik zeuden eta egarri handiarekin. Handik gertu oasi bat zegoen eta harantz gerturatu ziren. Kroki txakurrak horrenbesteko egarria zuenez, uretara murgildu zen. Bost minutu geroago, Kroki ez zen agertzen eta, susmo txarrak hartuta, ur azpira sartu ziren haren bila. Ezustean, piramidea aurkitu zuten; baina esploratu ere egin behar zuten eta Kroki aurkitu. Sartu zirenean, lehenengo gauza, garbigailu batean bezala jira-biraka hasi ziren eta, ondoren, urarekin nahastuz, baloi baten barruan harrapatuta aurkitu ziren, eta txirrista batetik behera joan ziren ziztu bizian. Urdail itxurako gela batean harrapatuta geratu ziren denbora batez. Hantxe bilatu zuten Kroki, beste baloi batean harrapatuta.

Denborarekin baloiak lehertu egin ziren. Cleok digestio prozesu baten antz handia hartu zion piramideari.

Arrazoi zuen: Piramide hura digestio prozesu bat burutzen ari zen. Ondoren, zementu-urinarekin eta harritxoekin nahastu ziren. Hodi-fasera iritsi zirenean, hodi hestean bi ordu pasatu zituzten zazpi metro horiek igarotzeko eta beren hondarrak piramide guztira banatzeko. Hodi zabalak hondar guztiak xurgatutakoan, hodi meharagora igaro ziren eta han beren esploratzaile tresnak xurgatu zizkieten. Azkenik, piramidetik atera ziren eta, sari moduan, hilezkorrak izateko behar zuten edabe bat aurkitu zuten.

Geroztik inor ez da hil, eta denak poz-pozik bizi dira.

Maria Iparragirre



Izaro Gonzalez

Biolina

Ezer ez da betiko

Biolinarekin kanta bat jotzen ari nintzela jo zuten atea, indar handiz:

—Kokoteraino gaude! —esan zuen gizon batek—. Nazka-nazka eginda gaude biolin ziztrin horrekin; horrela jarraitzen baduzue, udaltzainari deituko diogu.

Ni oso izututa nengoen; nire amak esan zion lasai egoteko, gehiago ez zituela doinu horiek entzungo-eta. Nik ez nion biolina jotzeari utzi nahi, ordea, asko gustatzen zitzaidan-eta. Gauean aitarekin hitz egin, eta berak esan zidan ez zela ideia txarra izango ni amonaren etxera joatea. Nik, egia esan, ez nuen nahi nire betiko etxea utzi, hemezortzi urte pasatu ditut bertan-eta; baina ez nengoen prest biolina uzteko. Horregatik hasi nintzen hurrengo egunean maletak egiten.

Amonaren etxean

Amonaren etxera joan, eta eskuak zabalik hartu ninduen. Amona Maria Santion bizi da, eta gurpildun aulki batean dago. Nire osaba-izebek eta nire gurasoek ezin zuten zaindu; horregatik bizi zen Larisam izeneko emakume pakistandar batekin. Bai amona eta bai Larisam asko poztu ziren berekin bizi behar nuela jakin zutenean. Gela dotore-dotore prestatu zuten niretzat:

—Hemen lasai-lasai jo dezakezu biolina, Laura; ikusiko duzu ze gustura egongo zaren —esan zidan amona Mariak.

—Zerbait behar baduzu, eskatu lasai —esan zidan Larisamek.


Kultura desberdinak

Larisam oso jatorra da; nirekin oso ondo portatzen da. Egun batean galdetu nion nola iritsi zen amona Mariaren etxera, eta berak haxe kontatu zidan:

—Orain dela bost urte etorri ginen Pakistanetik Oriora hiru familia. Nire senarrak istripu bat izan zuen, obretan lanean ari zela, eta hil egin zen. Gauza da gure kulturaren andreak lan egitea debekaturik dutela, baina niri hori ez zait ondo iruditzen. Hemen, Orion, emakumeak lanean ikusten ditut, eta pentsatu nuen nik ere lanean hasi behar nuela; zeren, Pakistanera itzuliz gero, oso gaizki pasako dut.

—Eta zure Orioko familiak zer esaten du?

—Ez dakite hemen nagoela. Zure amona Maria oso ondo portatu da nirekin. Santion nahiko lasai bizi naiz, baina kalera ez naiz asko irteten, beldurra daukat-eta.



Alex Ondoabal

Rafqat

Hurrengo egunean ikastolara joan nintzen. Ingeleseko orduan familiaren gaia lantzen hasi ginen. Irakasleak esan zigun bakoitzak bere familiaren inguruko zerbait aipatu behar genuela. Nire gelan Rafqat izeneko pakistandarra dago. Duela bost urte etorri zen. Bere txanda iritsi zenean, hauxe esan zuen:

—Nire osaba istripu batean hil da, eta nire izeba Pakistanera joan da.

Zur eta lur gelditu nintzen hura entzun nionean Rafqati. Goiz guztia egon nintzen berari begira. Beldurra sentitzen hasi nintzen begiratzen nion bakoitzean. Ezin nuen burutik kendu Larisamen aurpegia. Etxera iritsi eta siesta egin nuen, oso nekaturik nengoen-eta. Arratsaldean biolina jotzen aritu nintzen; melodia tristeak jo nituen.

Larisam eta internet

Larisami ez nion ezer kontatu, minik ez emateko. Amak ordenagailua ekarri zidan amonaren etxera. Larisami erakutsi nion interneten nabigatzen; hartara, erosketak bertatik egitea bazeukan, eta baita jende berria ezagutu ere.

—Asko eskertzen dizut, Laura; ez dakizu zenbat pertsona ari naizen ezagutzen internetetik. Orain gusturago bizi naiz.

Larisamek egindako ogia, *naan*-a, jaten genuen amona Mariak eta nik; baita *koma* izeneko jakia ere, hau da, oilaskoa arrozarekin. Hirurok oso ondo moldatzen ginen, eta ni oso gustura nengoen Santion.

Santioko bilera

Larisamek bere egoeran zeuden emakume batzuk ezagutu zituen internetetik. Larunbat batean, Santion bilera egin zuten:

—Tea hartzen duzuen bitartean, biolina joko dut zuentzat —esan nion Larisami.

Asko eskertu zuen. Sei emakume elkartu ziren, eta denak Euskal Herrian bizi ziren. Gauean, afaltzen ari ginela, amonak galdetu zion ea zerbait erabaki zuten:

—Etxetik irten eta lana egin behar dugula erabaki dugu.


—Baina, arazoak izango dituzue, ezta? —esan nion nik.

—Bai, badakigu, baina arriskatu behar dugu. Zaila izango da, baina hemengo emakumeen laguntza ere badugu.

Lagun berria

—Laura, gauza bat esan behar dizut. Interneten gizon bat ezagutu dut, eta berarekin gelditu naiz bihar arratsaldean Santion.

—Pozten naiz, Larisam.



Nahia Uranga

Hurrengo egunean nik lagundu nion janzten Larisami. Oso ederra zegoen: soineko gorria eta zapata beltz eder batzuekin jantzita irten zen etxetik. 19:30ean irten eta 22:00etan iritsi zen etxera.

—Zer moduz, Larisam? —galdetu nion atetik sartu bezain laster.

—Oso-oso ondo. Begira... argazki bat eman dit. Felix izena du.

Argazkia ikusitakoan, ikaragarritzko sustoa hartu nuen:

—Nire bizilaguna da-eta. Gizon hau da etxera jaitsi eta biolina gehiago ez jotzeko esan zidana.

Larisam mutu gelditu zen.

—Ohera noa eta bihar hitz egingo dugu —esan nion.

Hurrengo egunean Larisamek esan zidan amonari kontatu behar ziola gertatutakoa. Amona asko poztu zen, eta esan zion Felix etxera ekartzeko.

—Laura, ez beldurtu, ni egongo naiz zure ondoan-eta —esan zidan amonak.

Felix

Atetik sartzen ikusi nuenean, sorpresa ona eraman nuen. Ez zuen ematen nik nire etxean ikusi nuen gizona.

—Eta zu, nor zara? —galdetu zidan niri.

—Laura.

—Eta non bizi zara?

Nire etxea non zegoen esan nionean, begira-begira jarri eta hauxe esan zuen:

—Zuk biolina jotzen al duzu?

—Bai.

—Ni kexatzera joan nintzelako bizi al zara amonaren etxean?


—Bai —erantzun zion amonak.

—Asko sentitzen dut; baina nire ama ohean egon da urte asko, eta oso urduri jartzen zen biolina entzuten zuen bakoitzean. Horregatik joan nintzen zure etxera. Orain dela hamar egun hil zen.

—Ulertzen dut —erantzun nion.

Etxean berriro

Larisam eta Felix ezkondu egin ziren, eta ezkontzan Felixek gustuko zuen kanta bat jo nuen biolinarekin. Ni etxera itzuli nintzen, ahizpa txikia jaio zen-eta. Amonaren



Elena Elizondo

etxerako beste emakume bat aurkitu zuen nire amak, baina ni asteburu guztietan joaten nintzen amonarenera lo egitera.


Larisam eta ni bizilagunak gara, eta egunero ikusten dugu elkar. Orain biolina jotzeko arazorik ez dut, Felixen ama hilda baitago.

Rafqat ere askotan joaten da bere izebaren etxera, bere familiak onartu egin du-eta Larisami gertatutakoa.

Mafalda Lertxundi

Orio

Kantatu beharko ditut
bertso bat edo bi,
gaur bertan jarritakok
gure Oriori.
Herria inguratuz,
menditxoak sarri;
beste aldean, aldiz,
itsasoa nabari:
dena urdin-urdin,
olatu ugari,
surfista batzuek
nahikoa komeri.
Holakoa Orio,
herri polit hori.




Niobe Ferreira

Alde zaharra degu
herriko zaharrena,
Oteizaren etxea
degu hurrena,
zubian eta moilan
berria da dena,
berrogeigarrena da
urteurrena,
Ikastolarena,
ni ibiltzen naizena,
hori da onena,
hemen dagoena,
zenbat irri ta pena
bertan pasa dena.

Herri erditik urrun
daude gauza asko,
arraun klub berria
da, esaterako;
baita ere Ortzaika
eta Anibarko,
Antillako hondartza
baita ere badago,
Itxaspe haratago,
hotela hor dago,
ta dendak gutxiago,
pertsonek gehiago...
beste herri batera
ez naiz joango.

Eneko Eizagirre



Mafalda Lertxundi

Ez zintudan sortu nahi


Ez zintudan sortu nahi,
baina olerkiak gustatzen zaizkit.
Zu zara nire olerkia
alaia eta dibertigarria.

Ez daukat inspirazioa
eta falta zait informazioa,
badut obligazioa,
baina ez soluzioa...

Errimak asmatzea zaila da,
baina olerki hau diferentea da;
olerki honekin ondo pasatzen dut
eta, gainera, ia bukatu dut.

Saiatu naiz asmatzen eta asmatzen,
baina ez zitzaizkidan hitzak etortzen...
kostatu zait zu egitea,
baina lortu dut bukaerara iristea.

Maidar Uranga



Ainhoa Martikorena

Ilargiaren bila

Bazen behin bost kideko familia bat. Ama, Miren, oso eskuzabala zen, aita bezala. Naiak 11 urte zituen, ilea marroia zuen, begien antzera, eta oso alaia zen. Julenek 14 urte zituen, ilea hori-horia zuen, eta begiak urdin-urdinak; oso ona zen kiroletan. Sarak, berriz, 6 urte zituen eta oso bihurria zen.


Laster amaren urtebetetzea izango zen eta opari berezi bat nahi zioten egin. Horregatik, ilargia oparitzea bururatu zitzairen. Horretarako, eskailera luze bat behar zuten eta makilak biltzen hasi ziren. Pixkanaka-pixkanaka, eskailera luze bat egin zuten izar bateraino eta, gau batean, izar gainera igo ziren.

Orduan, ilargiaren bila hasi ziren. Izar batetik bestera saltoka, Jupiterrekin topatu ziren, eta ea Ilargia ikusi zuen galdetu zioten. Berak ezetz erantzun zuen, eta abenturarekin jarraitu zuten hiru anai-arrebek. Naiak atzera begiratu zuen eta Marte atzetik zutela ikusi zuen; oso haserre, gainera. Sarak hanka motzak zituenez, ez zen oso ondo iristen beste izarretara eta ia-ia Marteren suzko bola batek jo zuen. Korrika, Merkurioren atzean ezkutatu ziren eta Marte despistatu zuten. Marte joandakoan, saltoka segi zuten izarretik izarra. Geroago, Saturnorekin topatu eta haren eraztunetan jolasten aritu ziren. Azkenean, Julenek Ilargia ikusi zuen eta hara joan ziren. Julenek Ilargia motxilan jaso zuen eta etxera bueltatu ziren.

Hurrengo egunean kaxa polit batean sartu eta amari oparitu zioten. Ama oso pozik jarri zen; baina ez zuela nahi adierazi zien, mundu guztiarena zelako eta, bestela, gauak oso ilunak izango zirelako. Hirurak oso triste jarri ziren; baina, amarekin hitz egin ondoren, Ilargia itzultzea erabaki zuten. Hurrengo gauean eskaileretatik igo eta Ilargia bere lekuan jarri zuten oster.

Handik aurrera, gauero, gelako leihotik Ilargira begira egoten dira.

Ania Amilibia



Nahia Garro

Momien armada

Egun batean, Rikardo egiptologoa Egiptora joan zen, faraoi baten hilobia lapurtzeko asmoz. Baina, hori egin baino lehenago, hango tranpa arriskutsu eta beldurgarrien erruz, hil egin zen.

Inork ez zekienez non eta nola zegoen, urtebete igarotzerakoan, beste egiptologo bat joan zen: Markos.

Markos oso mutil liraina eta indartsua zen, 28 urte izango zituen, gutxi gorabehera. Izaeraz, oso leiala eta ausarta zen eta, gainera, bere laguntzailea, Yara, neskalaguna zuen.

Markos hilerrira sartzen ari zela, Rikardoren eskeletoa ikusi zuen lurrean, odolez betetako ezpata batekin eta, hori ikustean, asko harritu eta ikaratu zen. Bat-batean, Rikardo, momia bihurturik, mugitzen eta hitz egiten hasi zitzaion:

—Ez joan! Ez joan! Ez jarraitu! Zure etxera itzuli! Ez joan! Tranpek hil egingo zaituzte eta, gainera, faraoia ere momia bihurturik dago!

—Ezer ez esateko esan nizun momia bihurtu zintudanean, ezta? —moztu zion faraoiak. Ondoren, belarrira xuxurlatu zion:

—Ez zenion kontatuko zure laguntza behar dudala nire armada esnatzeko eta beste sekretu horri buruz, ezta?

—Ez, horri buruz, ez! —erantzun zion Rikardok, goibel.

—Zertaz ari zarete? —galdetu zuen Markosek, ikaraturik.

—Ezertaz ez! Ez zaizu axola! —erantzun zion faraoiak eta, hori esaterakoan, bera eta Rikardoren momia desagertu egin ziren.

Markos beldurtzen hasi zen; baina, ikusi eta entzun zuen guzti-guztia kontutan hartuta, aurrera jarraitu zuen. Tranpa guztiak saihestu zituen, baina gezi batek ia-ia burua zulatu zion. Faraoiaren hilobira sartzerakoan, ez zegoen inor, ezta ezertxo ere. Bat-batean, Rikardo agertu zen bere atzean eta eskuak eta hankak lotu zizkion soka lodi eta gogor batez eta zapi beltz zikin batekin estali zion ahoa.

—Mmmmmmm mmm mmmm! —esan zuen Rikardok, *zertan ari zara?* esan nahian.

—Barkatu! Agindu bat izan da eta derrigorrez bete behar nuen —erantzun zuen Rikardok, faraoia zegoen gelara zihoan bitartean.

Markos askatzen saiatzen ari zen bitartean, Rikardo eta faraoia momien armada esnatzeko plan bat pentsatzen ari ziren. Plana adostu zutenean, Markosi ezer ez esatea erabaki zuten eta hala egin zuten biek, beren hitza betez.

Denbora guzti horretan inor ez zen konturatu Yara izeneko neska zelatatzen ibili zela eta plana entzun zuela.

Yara Markosen laguntzailea eta neskalaguna zen, neska oso liraina eta jatorra. Bi hildako haien plana entzun eta gero, Markosen bila joan zen, askatzeko eta planaren berri emateko; baina, bukatu zutenerako, ezin zuten faraoia geldiarazi, ordurako armada esnatzeko hitzak esaten ari zen eta.

Hori ikusita, harrizko zutabe baten atzean ezkutatu ziren eta armada esnatu arte itxaron zuten, batak besteari xuxurlatuz:

—Ez mugitu eta ez hitz egin!

—Xxxx!

Orduan, Rikardok ikusi egin zituen eta, faraoia konturatu gabe, burua jiratu eta keinu bat egin zion begiarekin. Orduan, Markos eta Yara konturatu ziren Rikardo berei laguntzeko prest zegoela eta edozer egingo zuela armada geldiarazteko.

Momentu hartantxe, lurrean zuloak sortu ziren eta handik hondarra goraka hasi zen, geyserrretako ura izango balitz bezala.

Zulo haietatik faraoiaren momiez osatutako armada beldurgarria irten zen: denak arropa eta armadura guztiak erdi hautsita eta zaharkituta zeuzkaten. Begi eta mihi gabeak ziren eta beren arma guzti-guztiak ere erdi hautsita edo guztiz hautsita zeuden.

Rikardo faraoia nahasten saiatu zen, galdera tonto eta arraroak eginez:

—Zenbat soldadu daude?

—Zertarako jakin nahi duzu?

—Ez zaizu axola!

—Hori ez da faraoi jakintsu, ausart eta boteretsu bati erantzuteko modua! Entzun?

—Eta zergatik egiten duzu armadarena?

—Beraz, hori ere jakin nahi duzu, e? Ba, egiptologoen nire hilobia sakeatzeari uztea nahi dudanez eta era onean ez didatenez kasu egiten, era txarrean izan beharko du.

Orduan, Rikardok bultza egin zion faraoiari, zulo haietako batera sartu nahian, eta Markos eta Yarari beregana etortzeko keinua egin zien. Biak etorri eta gero, hirurek batera hau esan zuten:

—Entzun, momien armada! Faraoi txatxu honek ez dizue ezertan lagunduko eta nigana batzen baldin bazarete, mendekua har dezakezue!

Hori esanda, armada osoa konbentzitu zutelakoan zeuden; baina, ez zenez hala izan, inprobisatu eta momien aurka borrokatzea erabaki zuten.

—Orain guri ere tokatu egiten zaigu festan parte hartzea —esan zuten bi maite-minduek. Eta, hori esanda, salto egin eta borrokan hasi ziren.

Bitartean, Rikardo armadak berriro lo hartzeko faraoiak esan zizkion hitzak gogoratu nahian zebilen; baina, horretan ari zela, faraoia bere muturren aurrean jarri zen eta biak ere borrokan hasi ziren.

Nahiz eta borroka egiten egon, Rikardo hitz haien bila zebilen bere buruan:

—Ea, ba... Ez! Hau ez da... Eeemm... Hau ere ez da! Hau ere... Zeintzuk ote ziren hitz magiko horiek? —esaten zion bere buruari.

Bitartean, Markos eta Yara bikote lanean ari ziren, borrokan, beren bizitza borrokatzearen menpe balego bezala; eta, egia esan, hala zegoen.

Bat-batean, Rikardok esan zuen:

—Yara, Markos! Etorri hona!

—Orain goaz! Zuek hamarrok gurekin etorri, faraoiaren aurka egitera. Gero besteak ere joango dira —esan zioten Rikardori eta beren alde zegoen armada zatiari.

Rikardorengana heldu zirenean, hark honako hau xuxurlatu zien:

—Zuetako batek edo biek batera honako hau esan behar duzue: *Momien armada, nahiz txintxoa nahiz gaiztoa izan, hilda zegoen eta hilda jarraitu beharko luke munduan berriro bakea egon dadin, bakea egon dadin!*

—Ondo da: Momien armada, nahiz txintxoa nahiz gaiztoa izan, hilda zegoen eta hilda jarraitu beharko luke munduan berriro bakea egon dadin, bakea egon dadin.

Hori esatearekin batera, momien armadako soldadu momifikatuak banan-banan hondar bihurtu eta zuloak betetzen hasi ziren, inoiz existitu ez balira bezala.


—Orain gauza bera esan, baina faraoiarekin —esan zuen Rikardok, borrokatzen ari zen bitartean.

—Faraويا momifikatua, naiz txintxoa nahiz gaiztoa izan, hilda zegoen eta hilda jarraitu beharko luke munduan berriro bakea egon dadin, bakea egon dadin.

Hori esaterakoan, faraoi momifikatua ere hildako pertsona normal bat bihurtu zen eta, haizearen bidez, bere hilobira itzuli zen. Eta gure momia laguna, Rikardo, hil zen tokira itzuli zen, bera hil zuen ezpata berriro ere bihotzean sartu zitzaizolarik.

Hori ikustean, dena bukatu zela konturatu ziren eta beren etxera bueltatu ziren, betiko bizitza egiten jarraitzeko.

Maialen Aramendi



Mireia Mujika

Uxo zuriak


Leihora begiratzean,
uxo zuri pila bat ikusi ditut zeruan,
denen artean,
bihotz bat osatuz.
Nik irribarretsu begiratu diet,
eta berek muxu bana eman didate.
Zerura begiratu
eta, bat-batean,
ez zegoen ez uxo ez ezertxo ere bertan.
Orduantxe konturatu nintzen
han ez zela inoiz uxorik egon,
nire amets zoragarriak bakarrik zirela.

Ane Colado

Beti elkarrekin

Jaio nintzenetik, umetatik,
nerabezaroan beti nirekin,
hamahiru urteak elkarrekin.
Asko egin duzu nigatik,
opari ugari eman dizkidazu:
bizitza, maitasuna, poza...
Zer ez duzu egin nigatik?
Bihotzez estimatzen zaitut, ama!
Asko maite zaitut nik!

Naroa Miralles



Monika Uranga

Bizitza desberdinak

14 urteko neska bat Estatu Batuetako lehendakariaren alaba bakarra zen. Baina berak pertsona normalen bizitza nolakoa zen jakin nahi zuen; egun batzuetan pertsona normal bat izan nahi zuen. Eta, zorte handiz, hurrengo egunean, bere limusinan ikastera zihoala, leihotik oso bere antzeko neska bat ikusi zuen, ia berdina, eta pentsatu zuen, hain berdinak zirenez, egun batzuetan bizitzaz aldatzea, ez zelako inor konturatuko.

Bost bizkartzainekin ikastera zihoan egun batean, tarte txiki batetik ihes egin eta lehengo egunean ikusitako neskarengana korrika joan zen:

—Kaixo, ni Estatu Batuetako lehendakariaren alaba naiz, Diana, eta zu?

—Ni, Irati naiz; baina zu... nire iguala zara! Baina nolatan?

—Beno... badakit berdinak garela eta gauza bat proposatu nahi nizuke: nahi al duzu nire bizitza egun pare batez zurearekin aldatzea? Ni nazkatuta nago aberatsa izatearekin...

—Jakina! Gainera, berdin-berdinak gara eta ez da inor konturatuko! Ederra izango litzateke aberatsa izatea!

—Ez egin ilusio handirik... aberatsa izatea ez da hain erraza! Beno, goazen komun batera, eta aldatu gaitezen arropaz.

Komunean arropaz aldatu eta, aurrerago, bizkartzainekin topatu zen Irati.

—Non egon zara? Ezin duzu horrela bat-batean desagertu!

—Badakit, komunera joateko behar handia nuen. Barkatu.

Ikastetxetik irtetean, Iratik, ahal zuen bezala, Dianarekin hitz egin zuen, eta egun pare bat barru, ikastetxeko komunean elkartuko zirela adostu zuten eta, bitartean, bakoitzak bestearen bizitza bizi beharko zuen.

Diana, Iratiren etxea aurkitu zuen bezain laster, giltzak hartu eta atea irekitzen saiatu zen; baina, ezin zuenez, txirrina jo eta Iratiren amak ireki zion:

—Irati! Zer moduz ikastetxean? Ondo, ez? Beno, goseturik izango zara eta, entrenamendura joan aurretik, ogitarteko bat prestatuko dizut. Sartu, sartu!

Dianak, disimulu handiz, galdetu zion:

—Bai, ama. Jarri egidazu gazta ogitarteko bat... eta gaur... ze entrenamendu tokatzen zait, ba?

—Boleibolekoa, neska! Ahazturik zenuen, ala?

—Bai! Kar, kar, kar!

Bitartean, Irati patxada ederrean zegoen lehendakariaren etxean, egongelako sofan etzanda, etxeko lanak bukatuta zituelako. Eta etxea ikusten hasi zenean, komunean sartu eta hidromasaje bat ikusi zuen, jacuzzi-a, inoiz ikusi zuen bainuontzi handiena... eta, aurrerago, Dianaren logela aurkitu zuen. Atean Diana jartzen zuen zilarrezko letrekin. Sartu zenean, aurrean izugarritzko ohea ikusi zuen; eskuinean ispilu bat bere mahaitxo eta aulkiarekin, musika entzuteko ekipamendu garestienetako bat... Ohe ondoko mahaitxoan, Dianaren mugikorra.

Bat-batean, bere ondoan zegoen txirrinaren hotsa entzun eta berehala, jaitsi zen egongelara, eta han Dianaren ama —lehendakariaren emaztea, alegia— ikusi zuen bere zain.

—Baina, Diana, non sartu zara? Sartu azkar limusinan, balleteko klasea ordubete barru hasten da eta.

—Ballet? Esan nahi nuen... ballet... Bai, jakina!

Irati limusina zuri hartan sartu eta ballet-eko klasera iritsi bezain pronto, arropaz aldatu eta jarduera hura nola egiten zen asmatu ezinik, irakasleari kopiatzen hasi zen, baina irakaslea ez zen inozoa:

—Diana anderea, zer pasatzen zaizu gaur? Beste egunetan ez dituzu pauso horiek hain trakets egiten.

—Bai, irakasle!

—Deitu egidazu Luisa.

—Bai, Luisa, gaur oso nekaturik nago eta...

—Beno, hartu ezazu atsedena. Zoaz etxera.

—Ongi, Luisa. Agur.

Berriz ere etxe izugarri hartara eramane zuten Irati, eta logela narras zuela konturatu zen eta arropak jasotzen eta xurgagailua pasatzen hasi zen; baina, memento hartan, etxeko garbitzaileak atea jo eta sartu egin zen Dianaren logelan, zaratak entzun zituelako.

—Zer egiten duzu zuk logela txukuntzen?

—E... pixka bat zikina zegoela iruditu zait eta...

—Mila garbitzaile dituzu etxean, eta inoiz egin ez duzuna egiten ari zara: garbitu!

Iratik ez zekien zer esan, eta burura etorri zitzaion lehenengo gauza esan zuen:

—Beno, hasi zu lanean oraintxe. Kaletik etortzerako, dena txukun nahi dut. Mugi!

Diana, entrenamendura iritsi eta arropaz aldatu zenean, entrenatzaileak egun hartan oso gogor aritu behar zuela esan zion; baina, entrenatzen hasi zirenean, Diana oso gaizki ari zen, ez baitzekien ezer boleibolari buruz. Entrenatzaileak etxera bidali zuen, etsita. Etxera oinez joan zen, inoiz joan ez zen bezala eta, etxera iritsitakoan, poltsa sukaldean utzi eta logelara igo zen. Une hartan Iratiren amaren ahotsa entzun zuen.

—Irati! Jaitsi berehala sukaldera! Poltsa horrela ez da uzten! Arropa zikinak garbigailura! Zer gertatzen zaizu gaur? Ez zara lehengoa!

—Nekatuta nago, ama! —esan zuen Dianak, zer esan ez zekiela.

—Beno, ba, joan logelara eta, gela txukundutakoan, egin lo kuluxka bat.

—Lasai, ez dut lo kuluxka beharrik; kalera joango naiz, haize pixka bat hartzera.

—Bai, kalera joango zara; baina gela hori txukundutakoan —agindu zion amak.

—Bai, bai! Oraintxe noa —esan zuen Dianak, gogorik gabe.

Dianak ez zekien zer egin; ez zuen ideiarik ere nola egiten zen ohea, nola jarri arropak pertxetan, nola pasa xurgagailua... Gaua iritsi zenean, Diana oso harriturik zegoen, Iratiren etxean, beretzat, oso arraro jaten baitzuten: denek batera plater batetik hartzen zuten janaria, ez zituzten bakoitzaren mahai-tresnak, mahaia oso txikia iruditzen zitzaion... eta orduan konturatu zen, nahiz eta bizitzak oso ezberdinak izan, Irati oso pozik bizi zela zeukanarekin eta, gainera, pentsatu zuen gauza asko ikasi zituela, eta amari esango ziola aurrerantzean garbitzaile lanak berak egingo zituela bere logelan.

Irati afaltzen ari zen aberatsen moduan; baina berak faltan botatzen zituen bere etxean egiten ziren elkarrizketak, eta baita janaria ere. Etxe hartan dena zen goi mailakoa, baina berak goi mailako gauzak ez zirenak ere behar zituela konturatu zen. Nahiz eta aberatsa izateak gauza onak izan, hain aberatsa ez izateak ere hainbat onura zituela konturatu zen. Hurrengo egunean, ikastetxera joan zenean, Dianarekin joan zen komunera korrika, eta berriz ere arropaz aldatu ziren.

—Irati, eskerrik asko aukera hau emateagatik. Gauza askotaz konturatu naiz, eta ez ditut inoiz ahaztuko; ezta zu ere.


—Diana, nik eman beharko nizkizuke eskerrak, nire familia zeinen ona den konturatu naizelako eta ez dudalako gehiago behar. Eta ez zaitut ahaztuko. Espero dut berriz ere ikusiko garela.

—Jakina ikusiko garela! Gonbidatuko zaitut nire etxera!

—Baita nik ere nirera, eta gauza gehiago egiten ere erakutsiko dizut, garbiketari ikasi baituzu! Kar, kar, kar!

—Nik ere erakutsiko dizut hainbat gauza ez egiten, Irati! Kar, kar, kar!

—Beno, banoa nire klasera. Agur, Diana! Ikusi arte!



Maidar Uranga

—Ni ere banoa. Agur, Irati!

Gehiago ez ziren ikusi 14 urteko bi neskek; baina kontaktuan jarraitzen zuten hainbat lekutatik, eta bazekiten elkarren berri.

Alazne Arriola

Gaueko hamabietako asasinatzea

Gaueko zortziak ziren eta Hudson jaunaren jauregian afaldu behar zuen familia osoak, urte berria ospatzeko. Hudson jauna dena prest uzten ari zen, besteak iritsi baino lehen; hala ere, segituan iritsi ziren.

Lehenengo, bederatziak hamar gutxitan, Taylor eta Lukas iritsi ziren, eta beren poltsak uztera joan ziren 10. gelara.

Ondoren, bost minutu beranduago, Hudson andrea ailegatu zen, gauerako beharrezkoak ziren gauzak erostera joana baitzen.

Baina, azkenik, bederatziak eta hamarretan, Linnet eta Gaston iritsi ziren beren semeekin. Denak oso dotore zihozten, baina umore nahiko txarrarekin. Beren poltsak utzi eta 14. gelara joan ziren, urte bateko umea lokartzera.

Denak batera, saloian elkartu ziren. Taylor eta Lukas, Hudson jaunarekin hitz egiten hasi ziren. Linnet eta Gaston pianoa jotzen hasi ziren, eta Hudson andrea sukaldariarekin ari zen hizketan. Umeak patioan zebiltzan, soka saltoan eta baloiarekin jolasten.

Hamarrak hogeit gutxitan umeak hasi ziren afaltzen. Lehenengo, rabak eta kroketak jan zituzten; ondoren, azpizuna patatekin eta, azkenik, txokolatzeko izozki bat. Umeek afaldu eta gero, Linnetek logelara eraman zituen, lokartzera, baina hamarrak arte ez zen azaldu.

Denak mahaian prest zeudenean, sukaldariak lehenengo platera ekarri zuen, arrain zopa eta, ondoren, entsalada eder bat eta bisigua. Entsalada zerbitzatu bezain laster, ardoa ere ekarri zuen, horrela, arrainarekin batera edateko. Eta, azkenik, mahatsa falta zen. Segituan ekarri zuen sukaldariak, ia hamabiak ziren eta. Denek mahatsak plateran prest zituztenean hasi ziren telebistakoak, atzerako kontaktarekin. Han zebiltzan denak, mahatsak jaten...

Baina, bat-batean, Hudson jauna bere gelara joan zen, ondoeza zuelako. Momentu berean, Gaston eta Lukas, komunera joan ziren. Inor ez zen konturatu; baina, urte

berria ospatzen hasi zirenean, denak poz-pez zebiltzanean, Hudson jaunaren jesarlekua libre ikusi zuten. Denak harriturik, bere bila hasi ziren; baina, bat-batean, tiro hotsa entzun zuten. Berehala, Gaston eta Lukas ailegatu ziren, oso kezkatu, zer gertatu zen jakin gabe. Denak jauregian ibili ziren korrika, alde batetik bestera, Hudson jaunaren bila. Baina, bat-batean, Hudson andrea beren gelara sartu zenean, norbait berari tiroa botatzen ikusi zuen; baina, segituan, bertan gelditu zen hilda. Ondoren, denek beste tiro bat entzun zuten eta, segituan, Linnetek bere gurasoen gelara joatea erabaki zuen. Gelara iristean, bere gurasoak bertan ikusi zituen, tiroz akabatuta. Bere ama atearen aldamenean zegoen, lurtean etzanda, buruz behera. Baina bere aita ohean ikusi zuen, tapaki batekin estalita. Besteak abisatu zituen eta erabaki zuten poliziari eta anbulantziari deitzea.

Denek batera hitz egiten zuten gertatutakoari buruz:

—Baina nola demontre gertatu da, gu denok batera geunden eta! —esaten zuen Linnetek.

—Eta nola pasa da guztia? —galdetzen zuen Gastonek.

—Ba, nik uste dut norbait sartu eta irten egin dela jauregitik inor ere konturatu gabe —azaltzen zuen Lukasek.

Segituan, poliziak iritsi ziren eta den-dena berrikusten hasi ziren. Eta, segidan, detektibe bat sartu zen jauregira, Lureston izenekoa. Alboko herrian bizi zen eta munduko bi kasurik zailenak berak eraman zituen.

Familiakoak beren etxeetara joan ziren eta hurrengo egunerako gelditu ziren, bakoitzari galdeketa moduko bat egiteko.

Hurrengo egunean komisarian gelditu ziren, eta bertan galdeketak egiten hasi zen Lureston jauna.

Lehenengo, Linnetekin gelditu zen. Hau izan zen beren elkarrizketa:

—Non zenbiltzan, tiro hotsa entzutean? —galdetu zion Lurestonek.

—Ba, ni denekin mahaian afaltzen ari nintzen —erantzun zion besteak.

—Eta zerbait arraroa antzeman al zenuen, Hudson jaunaren portaeran?

—Nik ez. Beti bezala ikusten nuen, ohi bezala.

—Zeren bila joan zen bere gelara? Ba al dakizu?

—Uste dut mahatsak onik egin ez ziolako joan zela.

—Zu nortaz ez zara fidatzen?

—Nik uste dut ez zela izan jauregian zegoen inor. Nik uste dut norbait kanpotik jauregira sartu eta berriz ere kanpora irten zela.

—Ba, nahikoa dut zure erantzunekin. Mila esker.

—Ez, zuri. Agur.

—Bai, agur.

Ondoren, Gastonekin eta Lukasekin hitz egin zuen. Biek esan zuten, tiroa entzun zuten orduan, beren geletan zeudela. Xanpainaren bila joan omen ziren.

Beranduxeago, Taylorrekin hitz egin zuen. Berak ez zion ezer berririk kontatu.

Egunero zebiltzan Lureston eta bere lankideak jauregia goitik behera miatzen. Baina ez zuten ezertxo ere ikusten. Dena oso arraroa zen. Bat, Hudson jauna, mantarekin tapatuta zegoela, baina leihoa irekita; hori ez zen oso ohikoa. Horrek esan nahi zuen norbait sartu eta irten zela gelatik. Beste bat, Hudson jaunak pistola bat zuela bere eskuetan.

Horiek ziren gauzarik arraroenak. Baina, hala ere, Lurestonek egunero begiratzen zituen argazkiak...

Baina, egun batean, jauregiaren patioetik oinez zebilenean, Lurestonek zerbait ikusi zuen lurrean; justu Hudson jaunaren logelako leihoaren parean. Segituan joan zen korrika eta, orduantxe, kristal zati modukoak ikusi zuten, eta logelako leihoaren zati bat, hautsita. Horrek esan nahi zuen norbaitek nahita tiro bat bota zuela gelatik kanpora. Hori horrela zen zeren, bestela, logelan egongo ziren kristal zatiak.


Bestalde, manta eta leihoarena oso arraroa zen. Behin eta berriz ematen zizkion bueltak buruari, ea zergatik ote zen hori.

Baina, ia kasua ixtear zegoela, hiltzailea nor izan zen jakin zuen. Horregatik, hurrengo egunean, denei jauregian elkartzeko esan zien.

Denak mahai inguruan zeuden, epaia entzuten, adi-adi.

Eta hauxe esaten hasi zen:

—Egun on! Eskerrik asko berriz ere hemen elkartzeagatik. Oraintxe esango dizuet nor izan zen hiltzailea. Hasteko, gauza harrigarri bat gertatu zen: Hudson jauna mantarekin estalita zegoela eta, aldi berean, leihoa irekita zeukala. Bestetik, tiro hots hori oso berezia izan zen, kristal hotsa ere entzun zelako. Baina, justu, kristal zatiak patioan zeuden, ez bere logelan; horrek esan nahi zuen norbaitek nahita egin zuela, denek pentsatzeko tiroa kanpotik izan zela. Baina ez; gelan bertan izan zen tiroa. Hau da, norbaitek nahita egin zuen, denek jakiteko norbait hilda gelditu zela. Eta hori dela-eta, nik nere konklusioak atera ditut. Zuei hiltzailea oso harrigarria egin arren, froga pila daude hori egia dela egiaztatzen dutenak. Orain dena nola izan zen kontatuko dizuet. Lehenengo, Hudson jauna mahatsa jatean ondoezik zegoela gezurra zen. Ondoren entzun zen lehenengo tiro hotsa, nahita egina zegoen, denek pentsatzeko Hudson jauna asasinatua izan zela. Horregatik, lehenengo, Hudson andreak entzun



Itsaso Iriondo


zuen eta korrika logelara joatea erabaki zuen. Horregatik, bertara iristean, norbaitek tiroa bota eta bertan gelditu zen hilda. Eta, azkenean, Hudson jauna ikusi zuten tiro batekin hilda. Horregatik, hori dena dela-eta, nik nire konklusioak atera ditut. Mantarena nahita egin zuen, denek pentsatzeko norbait gelatik irten edo sartu egin zela; baina ez. Hala ere, zuek guztiok bere gelako leihoa bazenekiten irekita zegoela. Horrek esan nahi du hiltzaileak ez zeukala erlazorik mantaren kontuarekin. Hori dena dela-eta hiltzailea Hudson jauna da, eta oraintxe azalduko dizuet zergatik. Lehenengo, Hudson jaunak nahita egin zuen mahatsarena, denek pentsatzeko ondoezik zegoela. Bestetik, bera gelara sartzean, ohean etzan eta leihora tiro bat bota zuen eta, horregatik, Hudson andrea logelara iristean, beste tiro bat bota eta bertan hil zuen. Azkenik, Hudson jaunak bere buruari tiro bat botatzea erabaki zuen, batetik, poliziek segituan harrapatuko zutelako eta, bestetik, berak Hudson andrearekin akabatu baizik nahi ez zuelako.

—Hau amesgaiztoa da. Nire aita, hiltzailea? —esaten zuen, harrituta, Linnetek.

—Bai! Hala ere, oso kasu triste da: hiltzailea, hilda eta denetik ezertxo ere onik atera gabe.

Eta, handik aurrera, inor ez zen Hudson jaunaren jauregira joan, ezta familiakoak ere. Ez baitzuten nahi zorigaitz hura inoiz gogoratu.

Ane Colado



Paula Ondoizabal

Maitasuna ote?


Zurekin nagoenean, bihotza azkartu egiten zait
eta irribarrea ateratzen zait;
zu joandakoan, bihotza lasaitu eta triste jartzen naiz.
Zurekin nagoenean, denbora azkar pasatzen zait
eta ezin dut ahaztu zurekin pasatako momentuak,
nahiz eta momentu on eta txarrak izan.
Min egin didazun momentuetan,
barkamena eskatu didazu
eta ez dakit zergatik baina barkatu egin dizut,
nahiz eta pentsatu berriro egingo zenidala.
Orain ezin zaitut ahaztu,
denbora guztian nire buruan zabilta bueltaka;
jendeak esaten du hori maitasuna dela,
hala ote da?

Olatz Dorronsoro

Nire olerkia

Aulkian eserita, olerkia hasi, nola ez dakidala.
Idea asko bururatzen zaizkit,
baina bat bera ere ez da ideala:
olerki alaia nahiko nuke, edo tristea,
norbaitek irakurri eta betiko gogora dezala.
Baina ez dakit nola, pazientzia behar baita,
nik olerkia egiteko falta dudana.
Hala ere, ez da hain zaila izango,
ia olerki guztia amaitu dudalako.
Hori horrela, pozik nago,
eta honekin olerkiari diot amaiera emango.

Leire Izagirre



Nerea Ruiz

Marta

Kaixo. Nire izena Marta da, eta aitortu behar dut nazka-nazka eginda nagoela nire bizitzaz, nire gurasoez, nire maisuez, nire lagun faltsuez... Nazka-nazka eginda nago nire buruaz, nire azalaz, nire granoez, nire ile zikin garbiezinaz... Nazka eginda nire aurpegiarekin, beti berdina, beti gaizki eta itsusi, nazkatuta nago.

Nire gurasoengatik hasiko naiz. Nik ez dut ulertzen nola jaio nintzen ni nire amagandik. Nire ama oso ederra da: ilehoria, altua, ondo janzten du... Tira, motzean esanda, edozein mutilek nahiko lukeen emakumea da. Baina suposatzen dut nik aitaren antza dudala. Ez da ez dudalako maite; baina aita ez da, esan dezagun, oso goapoa. Noizbehinka pentsatzen dut ea nolatan ezkondu ziren nire gurasoak.

Nire gelakideez ere nazkatuta nago. Neska guztiak Daniren atzetik... Ai, Dani... Beno, esan behar dut ni ere Daniren atzetik nabilela, baina nire ametsa ez da inoiz beteko. Uste dut Danirentzako ez naizela existitzen ere. Nire lagunik onena, antza denez, gelako neskarik panpoxena da. Agh... horrek nazka ematen dit. Esan liteke inbidia daukadala, baina ez da hala. Gertatzen zaidana ez da hori, gertatzen dena da oso panpoxa izango dela, baina besteak baino gehiago dela uste du. Oraindik ez dut ulertzen nola izan daitekeen nire lagunik onena.


Beno... nire bizitzan zerbait ona egongo da, ezta? Ba, nik nire bizitzari ateratzen diodan gauzarik onena nire logela da. Nire logela Afrikako posterrez beteta dago. Horrek erlaxatzen nau. Nire logela munduaz ez pentsatzeko bide bat da. Baina horrek ere alde txar bat badu: nire ama. Ama beti egoten da, edo nire logela jasotzeko, edo ohea egiteko, beste gauza askoren artean. Nazkatuta nago.

Gaur, gelan, Daniri buruz pentsatzen nengoela, andereñoak harrapatu egin nau, eta Dani ere harrapatu du. Beraz, bai berari eta bai niri idazlana egitea agindu digu. Eskola... maisu-maistrak... beti berdina... Eskolak ez zuen horrela izan behar, nire ustez. Ez genuke irakasleek esaten duten guztia egin behar; askatasun pixka bat ematea ere bazeukaten.

Ondoren, etxera iritsitakoan, amak ondo eta errespetuz esan beharrean nire logela ordenatzeko, builaka hasi zait eta ni, munduko *malaletxe* guztiarekin, ezetz esan diot, ez dela izan bakarra egun nazkagarri bat eduki duena.

Gauean, afaltzen ari ginen bitartean, amak esan dit larunbatean izeban etxera gindoazela bazkaltzera eta ea joan nahi nuen. Nik, nire arrazoi guztiarekin, ezetz esan diot. Izeban etxera joaten garen bakoitzean, beti liskarrak egoten dira, eta nik ez dut hori aguantatzen. Beraz, esan diot etxean geratuko nintzela.

Ohera joan eta gaurko egunaz pentsatzen hasi naiz. Orduan hasi naiz pentsatzen, txikia nintzanean ze ondo bizi nintzen, arazorik gabe, eta ondoren etorri zait guk soto



Ainhoa Uranga

bat daukagula eta txikitan sotora joaten nintzela eta mamu bat zegoela imajinatzen nuela. Orduan, ezkutuan, gurasoak telebista ikusten ari ziren bitartean, sotora joan naiz. Barrura sartutakoan, gauza oso arraro bat gertatu zait. Gauzak mugitzen hasi dira, eta norbait hitz egiten hasi zait. Esaten hasi zait Jorge izeneko mutil bat dela eta txikitatik ezagutzen ninduela.

Jorge 1931n jaio zen mutil bat da, edo hori esaten du berak. Nik, egia esateko, oraindik ezin dut sinistu gertatu zaidana. Pentsatzen dut ezinezkoa dela, baina geroz eta buelta gehiago ematen dizkiot, eta geroz eta konbentzituago nago egia dela. Jorgek kontatu didanez, berak ere bere bizitzari nazka zion. Nire antza zuen. Esan dit pazientzia galdu zuela eta, azkenean, bere buruaz beste egiten bukatu zuela. Horrek beldurra eman dit, baina interesa ere sortu dit. Azaltzen hasi zait niregana jo duela nitaz interesatu delako. Neska oso panpoxa naizela iruditzen zaiolako. Orduan, maitemindu egin naiz. Inoiz ez zidaten esan panpoxa nintzela, eta inoiz ez ziren interesatu nigitik.

Hurrengo egunean, errekreoan, Danik nirekin bakarrik hitz egin nahi duela esan dit. Nire gelako neska guztiak, ni barne, harrituta gelditu gara. Ni ez naiz atzean gelditu eta, beraz, Danirekin hitz egitera joan naiz. Baina esan behar zidana esan didanean, dezepzionatu egin naiz. Danik esan dit ea lehengo egunean andereñoak agindu zigun idazlana bukatu nuen. Orduan gogoratu naiz idazlana neukala egiteko eta ezetz esan diot. Orduan, esan dit:

—Gelditu gaitezke batera egiteko?

Aurpegian irribarrea jarri zait belarritik belarrira. Baietz erantzun diot, ahots berezi bat jarriz. Arratsaldean gelditu gara nire etxean, nire gelan.

Arratsaldea iritsi da, eta Dani etxera oraintxe iritsiko da. Iritsi da, eta nire logelan gaude. Danik nire logelara sartzean, txundituta gelditu da. Harrigarria iruditzen zaio niri ere Afrika oso polita iruditzea, berari ere hala iruditzen baitzaio. Orduan, hitz egiten hasi gara, eta Dani momentu batez begira gelditu zait. Ni berari begira geratu naiz, eta Dani musu bat ematera gerturatu zait; baina ni atzeratu egin naiz, arrazoirik gabe. Beno, ez arrazoirik gabe. Suposatzen dut, Jorgez maitemindua nagoelako egin dudala atzera. Baina... Dani... ez! Niri Jorge gustatzen zait. Beraz, idazlana bukatu dugu eta Dani joan egin da, nahiko lotsatuta.


Hurrengo egunean, berriro errekreoan, bakarrik nengoenean, Dani nigana gerturatu da eta esan dit:

—Kaixo. Gauza bat esan behar dizut... atzotik ez diot zutaz pentsatzeari utzi.

—Zergatik? —galdetu diot.

—Atzera bota zaren neska bakarra izan zarelako.

Paula Argintxona



Paula Argintxona

Bizitzaren hautaketak

Oso ondo oroitzen naiz nire hamaseigarren urtebetetzeaz, ez oso berezia izan zelako, baizik eta orduan ulertu nuelako zer esan nahi zuen nire amak, bizitza hautaketez beterik dagoela eta bizitza hautaketen araberakoa dela esatean.

2009ko abuztuaren 8an nik, Denisse Craig-ek, 16 urte beteko nituen. Oso ilusio-naturik nengoen, autoko karneta atera ahalko nuke, institutuko 3. kurtsoa hasiko nuen... eta hura nire bizitzako urterik onena izango zela erabaki nuen.

Goiz hartan esnatu egin nintzen, kamiseta arrunt bat eta bakero ilun batzuk jantzi nituen, ezer berezirik ez. Ohean eseri nintzen, eta larruzko bota beltzak jantzi nituen. Sukaldera jaitsi nintzen, eta bertan ikusi nuen Mark, nire anaia zaharra. Eskubiko eskuarekin egunkariko orriak pasatzen zituen eta, bitartean, bestearekin gurinez igurtzitako ogi-txigortu zatiari eusten zion.

Orduan, aita jaitsi zen eta nire anaiaren aurrean eseri zen. Beti gorroto izan dut nire aita: nik bi urte nituenetik alkoholiko bat da, eta horrek bizitza aldatzen dizu. Hasieran, ama oraindik bizirik zegoenean, gauzak zertxobait hobeto zihoazen, beti nuen haren sorbalda negar egiteko. Baina, duela lau urtetik, ama gaixotasun misteriotsu batez hil ondoren, gauzak okerrera joan ziren. Ikastolatik etxera heltzean, beldurrez sartzen nintzen etxera, nire buruari galdetuz ea aita edanda egongo zen. Inoiz ez nuen ulertu zergatik ez zen ama dibortziatu; baina, barrenean, banekien erantzuna: izan ere, amak aita maite zuen. Horregatik, aitarekin ondo eramaten saiatzea erabaki nuen.

—Prest al zaude? —esan zuen aitak, alkoholak eragindako ahots dardararekin. Eta buruarekin baieztatu nion.

Aita, antza denez, oso ilusionaturik zegoen berak eta nik mendira egingo genuen txangoagatik. Ez nuen gogorik 24 ordu alkoholiko baten ondoan egoteko, baina amarengatik egitea erabaki nuen. Beraz, kafesne erdia gosaldut ostean, nire gelara joan nintzen, lurrean prest nuen motxila bizkarrean jarri nuen, eta mahai gainean nuen amaren argazkiari muxu eman nion. Sukaldera jaitsi nintzen eta, anaiari muxu eman ondoren, besarkatu egin ginen, eta aita eta ni etxetik irten ginen.

Asteak neramatzan bidaia hartan pentsatzen, aitarekin zertaz hitz egin ahalko nukeen nire buruari galdetzen. Baina une hartan ez zitzaidan ezer otu. Baina, ordu erdi geroago, jada mendiaren erdialdean geundenean, aitak esan zidan:

—Pozik al zaude txangoarekin?

—Bai... —erantzun nuen hizketaldi desoroso hori gelditzeko asmoarekin.

—Oraindik gogoratu egiten naiz bi urte zenituenean ezin zinela sukaldeko aulkira igo eta orain, ordea, emakume bat eginda zaude.

—Bai, denbora azkar pasa da —baina barrutik ez nuen hori pentsatzen. Hamalau urte nituenetik desiratzen nengoen hemezortzi betetzeko, etxetik alde egin ahal izateko eta aitaren aurpegia inoiz gehiago ez ikusi behar izateko.

Ez genuen gehiago hitz egin ilunabarrera arte, eta orduan hitz hauek esan zituen: *Edozer egingo nuke zugatik*. Baina nik banekien egia: bere ezpainen nahi zuten guztia esan zezaketen; baina bere begiek, ez. Aitak inoiz ez zuen seme-alabarik nahi izan. Berak nahi zuen guztia ezkontzea zen, tabernatik itzultzean nahi zuen guztia egiteko gai izango zen norbait eduki ahal izateko. Baina zorte txarra izan zuen eta amarekin ezkondu zen. Nire ama munduko pertsonarik onena zen, eta bizitzan zuen desira handiena seme-alabak izatea zen.

Gau hartan, aita lo zakuaren barruan lo seko zegoen bitartean, zutik jarri nintzen zerurantz begira. Izarrak zoragarriak iruditzen zaizkit, espazioa leku zoragarri bat izan behar du: bertan ez dago ez kezkarik ez sufrimendurik, zu bakarrik zaude suzko bola erraldoiez inguraturik.

Orduan, zerua lanbro misteriotsu batez inguratu zen. Ez nion garrantzirik eman hasieran; baina, lanbroa geroz eta azkarrago hurbiltzen zela ikustean, kezkatzen hasi nintzen eta aita esnatu nuen, bertatik joan behar ginela nekielako. Aita eta ni, orduan, zutik jarri ginen eta, pauso azkarrean, menditik ibiltzen hasi ginen. Orduan, haize bolada hotz bat iritsi zitzaigun eta korrika hasi ginen. Orduan, zuhaitz baten sustraian oina trabatu zitzaidan eta burua bertan zegoen harri baten kontra kolpatu nuen. Hortik aurrera, lainoturik ikusten hasi nintzen eta, jarraian, konortea galdu nuen. Baina, zentzua galdu baino lehen, ikusi ahal izan nuen aitak nola begiratzen ninduen, eta korrika nola ihes egiten zuen mendian behera. Inoiz ez nintzen fidatu behar izan alkoholiko arriskutsu batez.

Konortea berreskuratu nuenean, etzanda nengoen ohe erraldoi batean. Begiak pixkanaka-pixkanaka ireki nituen eta sabaira begira geratu nintzen; arrazoi ezezagun batengatik, eroso sentitzen nintzen. Baina, orduan, errealitatera itzuli nintzen eta, kolpetik, ohean eseri nintzen. Gau hartan gertatu zena gogoratu nuen, eta nire buruan behin eta berriro ikusten nuen aita, mendian behera korrika, ni bertan utziz.

Jarraian, egongelako atea ireki zen eta gizon altu bat sartu zen. Inoiz ikusi nuen pertsonarik ederrena zen. Ia bi metro neurtzen zituela kalkulatu nuen, ile hori kizkurduna zuen, eta bere kopetako kizkurren azpian, inoiz ikusi nituen begi urdinik ederrenak zeuden. Eserita nengoen oherantz hurbildu zen, eta esan zidan:

—Ea, hartu armairutik nahi duzuna janzteko, eta etorri jangelara afaltzera.

Beti erakutsi didate ez dela fidatu behar ezagutu berri duzun norbaitez, baina bere ahotsak bazuen zerbait erakarri egiten ninduen. Beraz, irten zenean, armairura hurbildu nintzen eta, kontu handiz, atea ireki nituen. Harriturik gelditu nintzen berehala: armairu guztia soineko zoragarritz beterik zegoen, kolore bizikoak, kolore apalekoak, bitxidunak... Baina, orduan, nire begiak armairuaren erdialdean zegoen soineko gorri

baten gainean jarri ziren. Berehala, soinean nuen soineko zoragarri hura. Ez zen gorria zehazki, odol kolorekoa zen, eta nire azal zurbilarekin kontrastatzen zuen.

Gelatik irten nintzen eta ez nekien zehazki norantz joan, baina pasilloan aurrera jarraitu nuen eta, azkenean, jangelara iritsi nintzen. Sartu egin nintzen, eta bertan ez zegoen inor. Gela haren erdian mahai erraldoi bat zegoen eta, haren gainean, hiru kandela zeuden; hala ere, nahikoak ziren gela guztia argiztatzeko. Mahairen muturrean eseri nintzen, kandelaren argiaz liluraturik. Trantzean sartu banintz bezala sentitzen nintzen. Baina, orduan, atea ireki zen eta arestian nire alboan zegoen gizon eder hura sartu zen. Nire aurrean eseri zen eta bere ahots gozoarekin hasi zen:

—Zer moduz zaude?

—Ondo esan beharko —ez nekien zer gertatzen zitzaidan, baina sentsazio arraro bat sentitzen nuen: leku hark gustatzen ez zitzaidan zerbait zuen, baina gizon haren begiek eroso sentiarazten ninduten—. Non nago?

—Nire etxean. Jauregi apal hau nire familiarena izan da duela ehun urtetik, eta orain nirea da —esan zuen irribarrez. Kandelaren argiarekin hobeto ikusten nuen, nire amaren adinekoa zela iruditu zitzaidan; baina, hala ere, nire adineko jendea baino askoz ere hobeto zegoen. Ederra zen eta oso edukatua—. Christian Sanders dut izena, eta zu?

—Denisse Craig —esan nuen. Ahotsa dardarka nuen. Hamabi urte nituela eta berriro ikastolan nengoela sentitzen nintzen, gustatzen zitzaidan mutilarekin hitz egiten. Baina ez nintzen txorakerietan pentsatzen hasi behar; etxera itzuli behar nuen. Beraz, ahotsa tinkotu nuen eta esan nion:

—Mila esker zure etxean ostatu emateagatik, baina orain etxera itzuli behar dut.

—Gaur ez, behintzat; lanbroa geroz eta azkarrago zabaltzen da, eta etxera itzultzea oso arriskutsua izango litzateke. Baina lasai, gaur hemen pasa dezakezu gaua, gonbidatuen gelan —ahotsaren tonua aldatu zuen, eta begira geratu zitzaidan erantzun zain; baina nik buruarekin baieztatu besterik ez nuen egin.

Afaldu ostean, nire logelarantz abiatu nintzen; baina, orduan, Christianek eskumuturretik heldu ninduen eta, ezer esan gabe, tiraka hasi zitzaidan, norabait eramanez nahiko banindu bezala. Eta hala zen: ate bat ireki zuen eta terraza zoragarri batean geunden. Dena lore zoragarritz beterik zegoen: arrosak, gardeniak, tulipanak... Barandarantz hurbildu nintzen eta, auto-gogoeta bat bezala, zeruari erreparatu nion. Orduan, itzuli eta Christiani begira jarri nintzen. Zerbait esango zuela espero nuen; baina une hartan ez genuen hitzen beharrik, dena argi zegoen. Beraz, esku batekin lepoa inguratu zidan, eta bestearekin gerritik heldu zidan beregana hurbilaraziz eta, orduan, muxu eman zidan.

Hura eta gero ez dakit zer gertatu zen; baina, ohartu nintzenerako, pasillotik ibiltzen ari nintzela ohartu nintzen, eta ez nekien norantz nindoan. Orduan, gelditu egin nintzen, eta nire gelara nola joan behar nintzen gogoratzen saiatu nintzen. Baina ez nuen pasillo hura etxe hartara iritsi nintzenetik ikusi; beraz, ibiltzen hasi nintzen ateara

joz zerbitzariren baten erantzuna jasoko ote nuen entzunez, eta kasu batzuetan atea zabalduz ere bai.

Halako batean, ateetako bat ireki nuen eta, ixtera nindoanean, gela hartako hormara begira gelditu nintzen. Bertan koadro erraldoi bat zegoen, eta han hamahiru bat urteko mutil baten erretratua zegoen. Inoiz ez nintzen izan neska kurioso bat, baina nire barruan su txiki bat piztu zela sentitzen nuen eta, konturatu nintzanerako, marrazki hartatik bost zentimetrora nuen aurpegia.

Inoiz ez nuen ikusi halako pintura ederrik. Egindako pintzeladak inoiz ikusi nituen zehatzenak ziren, eta erabilitako koloreak ezin ziren hobeto aukeratu; kontraste zoragarriak egiten zituzten. Orduan, marrazkian zentratu nintzen... mutil hura horren ezaguna egiten zitzaidan! Haren begiak, haren ile kizkurduna... Eta ohartu egin nintzen: Christian zen. Gaztetan egindako erretratua zen hura; beraz, ziurrenik hura bere logela izango zen.

Logelatik itzuli bat ematen hasi nintzen, belusezko besaulkiak laztanduz, eta oheko burukoan, bere *aftershave*-a usainduz. Gelatik ateratzekoa nintzen; baina, orduan, nire begiak mahai txiki batean zegoen liburu txiki baten gainean jarri ziren. Eskuekin kontu handiz hartu nuen. Marroi kolorekoa zen eta giltzarrapo txiki bat zuen; baina une hartan irekita zegoen. Beraz, ezin izan nion kuriositateari eutsi, eta liburua arakatzen hasi nintzen. Bertan idatzirik zeuden testu laburrak irakurtzen hasi nintzen, eta ez nuen denbora gehiegirik behar izan Christianen egunerokoa zela ohartzeko.

Pribatutasuna oso kontu serioa izan da beti niretzat; beraz, liburua ixtekotan nengoen... baina, orduan, nire zentzu guztiak piztu egin ziren, eta duela lau urte idatzi zuen testutxo batean zentratu nintzen:

Eguneroko maitea, nire susmo guztiak egia zirela ohartu nintzen duela egun batzuk. Duela hamalau urte maiteminduta egon nintzen inoiz ezagutu nuen emakume zoragarrienaz eta hark ere gauza bera sentitzen zuen nigatik. Baina egun batean esan zidan bere gurasoekin joan behar zela, beste hiri batera bizitzera, eta inoiz gehiago ez ginela ikusiko ziurrenik. Mundu guztia nire sorbalden gainera erortzen zela sentitu nuen. Urteak behar izan nituen hura dena asimilatzeke; baina, azkenean, lortu nuen. Baina duela egun batzuk, menditik jaitsi nintzen merkatura joateko, eta bertan zegoen: urte guzti haietan maite izan nuen emakumea. Korrika berarengana hurbildu nintzen, baina hamabi metro besterik geratzen ez zirenean gure artean, bi ume hurbildu zitzaizkion eta, haien atzetik, besoetan hartu eta muxu eman zien gizon bat etorri zen. Bai, nire susmoak egia ziren: nire maitemina nitaz ahaztu zen, ezkondu egin zen beste batekin, eta familia bat izan zuen. Baina mendeku hartu dut. Atzo gauean, bere familia guztia lotan zegoelarik, haren etxera joatea erabaki nuen eta, inork ikusten ez ninduenean, hil egin nuen.

Bihotza 120 taupada/segundora nuela sentitzen nuen. Baina hurrengo orrira iritsi arte ez nuen sentitu nola urruntzen nintzen mundu honetatik, eta nola sartzten nintzen zulo beltz erraldoi batean. Hurrengo orrian Christianen eta nire amaren argazki bat zegoen. Nire ama ez zen gaixotasun misteriosu batengatik hil; hil egin zuten.

Bihotza atera egingo zitzaidala uste nuen. Eta, une hartan, nire atzean norbait zegoela ohartu nintzen. Biratu egin nintzen, eta nire susmorik txarrenak errealitate egin ziren. Christian niri begira egon zen denbora guzti hartan, eta bazekien nik hilketaren berri nekiela. Bere eskuak gorroto eta indar handiz nola ixten ziren ikusi nuen; baina, nire gainera bota baino lehen, korrika hasi nintzen, eta etxe hartatik ihes egin nahian hasi nintzen.

Eskaileretan behera nindoan abiada izugarrian, pasilloak igarotzen nituen, ateetatik igarotzen nintzen. Ez nekien norabide egokitik nindoan, baina berdin zitzaidan; une hartan nire burutik pasatzen zen gauza bakarra nire ama hil zuen psikotiko harengandik ihes egin behar nuela zen.

Azkenean, etxetik irtetea lortu nuen, eta korrika hasi nintzen menditik. Asko kostatzen zitzaidan ibiltzea soineko harekin; egia zen zoragarria zela, baina faltan botatzen nituen nire bakero eroak, eta korrika egiteko nire zapatilak.


Orduan, norbait nire atzetik korrika bizian zetorrela sentitu nuen, baina oraingoan ziur nekien zein zen. Christian nire atzetik zetorren, ni hiltzeko, poliziari entregatzeko aukera izan baino lehen.

Hamar bat minutu korrika eman ondoren, ez nuen entzuten nire atzean oin-hotsik; beraz, biratzea erabaki nuen, psikotiko hura urruti utzi nuen ikusi ahal izateko. Ez nuen inor ikusi eta, Christian atzean utzi nuela uste nuenean, adar bat nire aurrean nola puskatzen zen entzun nuen. Momentuan biratu nintzen, eta nigatik erruki izateko astia izan baino lehen, Christianek lepotik heldu zidan, eta trakea itxi zidan, oxigenoari pasatzen eragotziz.

Ostikoka eta mugimendu bortitzak egiten hasi nintzen, baina ezin izan nuen ezer egin. Eta handik segundo batzuetara, nire bihotzaren taupadak ia guztiz gelditu zirenean, eta nire birrikak guztiz oxigeno gabe zeudenean, nire azken arnasa eman nuen. Segundo gutxi haietan, ulertu egin nuen, zergatik esaten zidan amak beti gauza bera, Kontuz zure erabakiekin; izan ere, bizitza gure hautaketan baitan dago. Eta egia zen, nik erabaki nuen nire amagatik aitarekin txango hura egitea; nik erabaki nuen, sustrai hartan hanka trabatzean, aitaren laguntzaren zain egotea; nik erabaki nuen Christianengan konfiantza sentitzea; nik erabaki nuen eguneroko hura irakurtzea; eta nik erabaki nuen korrika egiteari uztea Christian nire atzean jarraitzen zuen ziurtatzeko.

Horregatik, nire hautaketek eraman naute nagoen egoerara, nire erabakiek eraman naute heriotzara zuzenean eta, horregatik, denok izan behar dugu kontuan bizitza hau erabakiez eta hautaketez beterik dagoela. Izan ere, bizitza hau minaz beterik dagoen esparru baten antzekoa da, eta erabaki txar batek mina bat aktibatu dezake, gure bizitza leher dezakeen mina bat.

Ione Zinkunegi



Alazne Zabala

Egunerokoa


Beste egun normal batean bezala, sukaldean nengoen platerak eta sukaldeko beste hainbat gauza garbitzen. Nirekin batera ezagutzen ez nituen hainbat haur zeuden. Egia esan, bi pertsona bakarrik ezagutzen nituen: Ander eta Brook. Azken hori afrikarra, ni bezalaxe. Haur gehienak nire adin berekoak ziren: 12 urtekoak, zehatz esanda.

Ni, bertako beste haurrak bezala, umezurtza nintzen. Han inork ez zekien nondik etorria zen eta ezta zer izen zuen ere. Askoren izenak bertan asmatu genituen. Nik neure buruari Jon jarri nion eta nire lagunak, Ander. Nire beste lagunaren izena benetakoa zen, Brook, Brooki irakurtzea eta idaztea asko gustatzen zitzaion eta beti zeraman gainean bere egunerokoa.

Egia esanda, ez nuen atsegin leku hura. Lana besterik ez genuen egiten: sukaldeko gauza guztiak garbitu, etxe erraldoi osoan erratza pasa, matematikak egin... Gauza pila egiten genituen; ia ez genuen jolasteko denborarik, ordubete bakarrik. Kanpora irten nahi genuen; baina hango zaindarien ez ziguten uzten eguzki izpirik ikusten ere. Horrez gain, oso gaizki tratatzen gintuzten: jo, bultzatu, eta, gainera, ez ziguten ia janaririk ere ematen.

Egun batzuk lehenago, sukaldearen ondoan nengoela jolasean, bi haur sartu ziren magdalena baten bila, gose baitzeuden. Ez ziguten baimenik gabe edozein gelalara edo lekutara sartzen uzten; beraz, bazekiten arriskatzen ari zirela. Orduan, sukaldearen erdian zegoen janari gozo hura hartzeaz zeudenean, sukaldearen mutur batetik zaindari bat jaiki zen bere eserlekutik eta bi mutilengana joan zen korrika batean. Gizon gaizto hark bi haurrak hartu eta eramane egin zituen sukaldetik; nire iritzian, umezurtzetxe nagusiarengana. Orduan aurrera ez genituen gehiago ikusi, eta haur guztien artean zurrumurru bat zabaldu zen: zaindarien nagusiarengana eramaten zituzten haurrak gela ilun batean sartzen zituztela eta ez zirela ateratzen gosez hil arte.

Beste egun batean, Ander, Brook eta ni pilotarekin jolasten ari ginela, nahi gabe, Brookek zaindari bat jo zuen pilotarekin, eta itxura basati eta aurpegi ilundua zuen gizon hark Brook hartu eta eramane egin zuen zuzendariaren gelara. Bidean Brooki egunerokoa erori zitzaiola ikusi nuen eta ziztu bizian jaso nuen. Eguneroko hura hartu eta, ahalik eta azkarren, zaindariaren eta Brooken atzetik joan nintzen, gizon beldurgarriari gertatutakoa nahi gabe izan zela esateko. Laguna libre utz zezan erregutu nion, baina zaindaria ez zidan kasurik egin; bere munduan bezala jarraitu zuen, inori begiratu edo ezer esan gabe, zuzendariaren bulegoraino. Nire lagun Ander eta biok atearen bestaldean geratu ginen, Brooken zain. Orduak joan eta orduak etorri, ez zen ezer pasatzen eta, bitartean, Brooken egunerokoa irakurtzen hasi nintzen.



Ignazio Zaldua

1987-07-04 (16:00)

Nire urtebetetzea da gaur eta eguneroko bat oparitu dit amak. Aitak ez, aita aspaldi hil zitzaigun. Nire anai-arrebekin jolasten aritu naiz ea nork egiten duen korrika azkarren. Ni gazteena izanda, garbi dago zer pasa den: galdu egin dut eta nire anai-arreba zaharrenek irabazi eta besteak bigarren; baina egun batean irabaziko ditut.

Herri txiki batean bizi naiz; Seatown du izena. Lastoz egindako etxoletan bizi gara. Eliza bat dago erdi-erdian; oso zaharra dago eta laster eroriko dela uste dut.

1987-07-05 (10:30)

Ama oso gaixorik dago eta gertu dagoen ospitale batera eramaten ari gara ahalik eta azkarren. Autorik ez dugunez, astoz eraman behar dugu, beste irtenbiderik ez dugu eta. Auto batean bi orduan iritsiko ginatke; baina, astoz, hamar orduan iristeko esperantza dugu.

(15:30)

Dagoeneko 5 ordu pasa dira eta bide erdia egin dugu bakarrik, orain gizon adiskidetsu eta eskuzabal baten etxean gaude, atsedean hartzen eta ogi zati bat jaten. Gure eran berak ere ez dauka berarentzat adina janari eta ogi zati batzuk besterik ezin dizkigu eman.

(21:00)

Iluntzen ari da; gaueko bederatziak dira eta, bide luze baten ondoren, ospitalera iritsi gara. Han oso berri txarra eman digute: amak bizirik gehienez astebete iraungo duela; sendagairik ez duen gaixotasun bat omen du.

1987-07-06 (1:30)

Nire ohean nago; baina ezin dut lorik egin medikuek eman ziguten berri ikaragarri horren erruz. Denbora guztian ama datorkit burura eta hilko dela pentsatze hutsarekin gorputz guztian beldurra sartzen zait. Atzo hiru anaiok gai horretaz hitz egin genuen eta amari inoiz bizitako zazpi egun zoriontsuenak opa egitea erabaki genuen. Gure aita hilik dago; baina, seguruenik, gutaz harro egongo da.

1987-07-12 (18:00)

Anai-arrebekin nago, hilobi baten ondoan jarrita. Ama bertan sartuta dago; baina ni oso harro nago, hil aurretik hau esan baitzigun: Hauexek izan dira nire egunik onenak. Eskerrik asko.

1987-08-05 (11:00)

Nire gelan nago behar dudan guztia hartzen. Ama hil zenetik ez dugu ez janaririk ez ezer, ez dugulako lanik. Orain, Espainia aldera noa lan baten bila; itsasoa gurutzatzeko asmoa dut itsasontzi batean.

1987-08-26 (15:30)

Egun askoren ondoren iritsi naiz portu batera; ez dakit Espainia den ala Afrikako beste portu bat, baina uste dut Espainia dela. Izugarrizko urbanizazioak eta autoak daude eta 100 metro luzeko etxe handi-handiak. Bat-batean arropa arraroz jantzitako gizon bat hurbildu zait, eskuetan arma hilgarri bat duena. Eskutik heldu eta bere autoan sartu nau. Galdera asko egin dizkit; baina ez diot asko ulertu, espainola iruditu zaidan hizkuntza batean hitz egin dit eta.

Galdera batzuk egin eta gero, etxe handi-handi batera eraman nau; baina eraikin hartan gustura egongo ez naizen susmoa dut.

Egunerokoa irakurtzen ari nintzen bitartean, bat-batean, zuzendariaren bulegoko atea ireki zen, eta lehengo zaindari itsusia atera zen. Nik Brook non zegoen galdetu nion, baina ez zidan kasurik egin. Egia esan, zaindariak ez ziguten inoiz ezer kontatzen, ez hitz egiten. Eta, bulegotik atera ahala, alde egin zuen ziztu bizian korridorean behera.

Hurrengo egunean nire gelan nengoen, ohean etzanda, asper-asper eginda. Brook oraindik ez zen itzuli eta inoiz itzuliko ez zen susmoa nuen. Horregatik, haren bila joateko plan bat asmatzen hasi nintzen; baina, bakarrik ezin nuenez burutu, Anderri laguntzeko eskatu nion. Anderrek ezetz esan zidan, ez zuela istilu gehiagotan sartu nahi, eta beldurra aurpegian marraztuta joan zen gelatik. Espero nuen bere ezezkoa, baina ahalegindu beharra zegoen.

Nola edo hala, Brook salbatu behar nuen. Nire asmoa, beharbada, ez zen onena; baina egin beharra zegoen gauza bat nuen buruan: etxeko buruaren bulegora sartzea eta begiratzea ea zer zegoen han, zer egiten ziren bertan sartzen ziren haurrei eta, garrantzitsuena, Brook salbatzea; haren egunkaria begiratzuz, ikusi nuen-eta zer bizitza tristea izan zuen.

Egin nuen lehen gauza umezurtz-etxeko zaindari guztien kokalekua zehaztea izan zen. Hori jakinez gero, errazago burutuko nuen nire lana; zaindari bat bera ere inguruan ez egoteak, betiere, gauzak erraztuko zituen. Lan hori guztia eginda, denen artetik bigunena edo indar gutxien zuen gizon maltzurretako bat bilatu behar nuen, nire plana martxan jartzeko. Hori izango zen nire planaren lehenengo zatia.

Nire ustetan, zaindaririk bigunena 3. solairuan zegoen, 24. haur taldearen gela zaintzen. Isil-isilik, inolako zaratarik atera gabe, bere ingurura joan nintzen, atzetik erasotzeko. Eraso nionean, segituan kontraerasoa egin zidan eta, egia esan, nik uste baino hobea zen borrokan. Ez zen oso indartsua; baina bere azkartasunak oso etsai gogorra eta irabazteko pertsona zaila bihurtzen zuen.

Borrokak ez zuen asko iraun: 10 minutu, gutxi gorabehera. Bere erasoak ekidin nahian ihesi ari nintzen, ez nuelako aurkitzen berari aurre egiteko ezer baliagarririk. Baina, bere eraso batean, lurrera erori nintzen, gelako atearen ondora. Orduan, zerbait

eusteko ahaleginak egiten ari nintzela, bat-batean atearen eskulekua ikusi nuen apurtuta. Hartu, berari jaurti eta buruan eman nion. Konortetik gabe utzi nuen. Zaindaria lurrean botata zegoen bitartean, haren arropak hartu eta nik jantzi nituen. Lurrean botata zegoen gizona ez zen oso altua eta bere jantziak primeran geratzen zitzaizkidan; benetako zaindari baten itxura nuen.


Ondoren, badaezpada ere, min egin zezakeen edozer objektu hartu nuen, zaindari gehiagorekin topatzen banintzen, probetxuzko zerbait edukitzeko, beren kontra borrokatu behar izanez gero. Gero, zuzendariaren bulegoraino joan nintzen ahal bezain pronto. Barruan beldurra sentitu nuen, porrot egingo nuen sentipena neukan; baina sentimendu hori alde batera utzi eta bulegoaren atea ireki nuen. Atearen bestaldean pasillo handi bat zegoen eta, pasilloaren bi aldeetan, ate handi bana. Batek “A gela” izena zuen, eta besteak “B gela”. Seguruenik, bietako batek zuzendaria zegoen lekura eramango zuen eta besteak haurrak giltzapean edukitzen zituzten gelara. Ez nekien zeinetan sartu aurrena, bietako batetik ere ez zen-eta hotsik entzuten. Nire helburua haurrak zeuden lekura iritsi eta salbatzea zenez, ez nuen nahi zuzendaria zegoen gelara sartu, ezta gutxiagorik ere. Zer egin?

Azkenean, A gela hautatu nuen. Atea ireki nuen, bestaldean haurrak egongo ziren itxaropenarekin. Baina han ez zen inor. Bat-batean, gizon baten itzala ikusi nuen nire aurreko eserlekuan eserita. Nire bihotz taupadak ziztu bizian zebiltzala konturatu nintzen; huts egin nuen atea aukeratzekoan, zuzendariaren bulegoan bainengoen. Minutu erdiz geldi-geldi geratu nintzen, ezin mugitu. Ezin nuen ezer egin zuzendaria ni harrapatzen saiatzen bazen, haren menpe baitzeuden etxe osoko zaindari guztiak. Momentu batez lasaitu nintzenean, ordurako banekien lo zegoela eta, isil-isilik, mahaiaren ingurura joan nintzen. Han koaderno bat zegoen, eta hartu egin nuen, ea informazioarik bilatzen nuen gela misteriotso hartan zer zegoen jakiteko. Baina gelako ezer jarri beharrean, haur bakoitzaren izena, adina eta bere anai-arreben izenak agertzen ziren. Bat-batean, Brooki buruzko informazioa ikusteko gogoia sartu zitzaidan. Eta haren informazioa agertzen zen orriraino iritsi nintzenean, ahoa zabal-zabalik geratu zitzaidan: nire izena zegoen bere anai-arreben artean! Badaezpada ere, nire datuetara joan nintzen, ea Brooken izena bertan zen. Eta halaxe zen, bai; han zegoen bere izena. Nik banekien anaia galdu batzuk nituela; baina ez nekien Brook anaia horien artean zegoenik.

Eraikin honetara etorritakoan, zuzendariak egin zizkidan galdera batzuetako batean ea Afrikatik nentorren galdetu zidan eta nik ez nekiela erantzun nion. Orduan, zuzendariak hauxe kontatu zidan:

—Seguruenik ez zara gogoratuko; baina zu afrikarra zara, eta arrazoiren batengatik baztertu egin zintuzten zure gurasoek. Orduan zu Espainiara etorri zinen. Eta orain, umerzurtz, etxe honetan zaude eta gurekin biziko zara.

Ordutik aurrera, banekien afrikarra nintzela; baina ez nekien Brook nire anaia zela. Orduan erabaki irmoa hartu nuen: salbatu egin behar nuen, bai ala bai; nire anaia zelako, ezer baino lehen.



Jokin Zubeltzu

Denbora luzea eman nuen, harriturik, sinistu ezinik, eta ahaztu egin zitzaidan zuzendariaren bulegoan nengoela. Gogoratu nintzenean, ahal nuen azkarren gela hartatik ateratzen saiatu nintzen. Baina, atera baino lehen, gelako atea itxi egin zen eta bertan giltzapetuta geratu nintzen. Isil-isilik giltzaren bila hasi nintzenean, nire aurrean gizon handi bat ikusi nuen. Orduan konturatu nintzen zuzendariaren aurrean nengoela eta ez nuela ezer egiterik. Gizon handi hura hitz egiten hasi zitzaidan:

—Ume, zergatik esnatu nauzu?

—Nire laguna eta anaia den Brooken bila nabil —erantzun nion.

—Ahaztu zaitetz haur horretaz! Laster ez da eta bizirik egongo, bere ekintza tamalgarri hori ordaindu behar du-eta.

—Horregatik ezin duzu hil!

—Hori ez duzu zuk erabakiko.

Eta azken hitz horiekin ni harrapatzen saiatu zen; baina, salto bat eginda, bere mahaiaren gainera joan nintzen eta gelan irekita zegoen leiho batetik ihes egin nuen. Eskerrak lehen pisuan nengoela, bestela izugarrizko mina hartuko nuen bigarren edo goragoko pisu batetik salto egin izan banu. Umezurtz-etxearen kanpoaldean nengoen, eta barrura sartu behar nuen kostatuta. Ate nagusia irekita zegoen, baina gauza batez pentsatzen ari nintzen: nola zekien ni haur bat besterik ez nintzela, zaindari baten jantziak eta heldu baten gorpuzkera nuela jakinda?


Ikusitakoari buelta asko emateko denborarik ez nuen eta, berriro ere, bi ate zeuden lekurantz jo nuen. Orain banekien zein ate zen. Barrura sartu nintzenean, korridore luze bat ikusi nuen; eta haren amaieran, ate bat. Pasabide luze horren alboetan hogeitau bat zaindari zeuden. Seguruenik zuzendariaren agindua jarraituz egongo ziren han. Oso urduri eta beldurtuta nengoen; baina banekien nik neukan jantziarekin bertan zeuden zaindari horietako bat ematen nuela. Horregatik, ahalik eta lasaien, ez antzemateko, korridorearen alde batetik bestera joan nintzen, astiro-astiro. Baina, bestaldera iritsi bezain pronto, gizon batek esan zidan arakatu egin behar ninduela, zaindari bat beharrean, beste norbait nintzen jakiteko. Bukatutakoan, esan zidan baneukala pasatzea.

Ate hura pasata, haur giltzapetu guztiak zeuden lekura iritsi nintzen. Gela oso zikinena zen eta tramankulu arraro asko zituen: sabaitik zintzilik zegoen soka bat, haurrak elektrokutatzeko aulki bat... Labur esanda, haurrak hiltzeko gela bat zen eta, beraz, haurren arteko zurrumurruak egia zioen. Han haur asko zeuden eta haien artean Brook zegoen. Berarengana joaten hasi nintzenean, esan zidan:

—Kontuz, Jon! Tranpa bat da!

—Zergatik izango da, ba, tranpa bat?

—Zuzendaria hemen dago eta harrapatu nahi zaitu!



Itxaso Azkonbieta

—Nolatan dakizu hori?

Eta hitz egiten ari ginen bitartean, gizon bat agertu zen haur multzoaren atzetik. Zuzendaria zen. Zuzendaria niregana etorri eta esan zidan:

—Lehen ihes egin duzu; baina orain ez duzu egingo.

Hori esan bezain pronto, atea ireki zen eta, bat-batean, gizon multzo bat agertu zen. Polizia zen. Baina polizien burua ni arakatu ninduen gizona zen. Esan zuen:

—Umezurtz-etxe honetan 5 urte zelatan egon ondoren, ezin nuen gehiago onartu haurrei egiten dizkiezun gauza guzti horiek. Jean Bleu zuzendaria, atxilotua zaude!

—Niregana etorri beharko duzu atxilotzeko.

Eta zuzendariak txistu egin zuen. Berehala, zaindari ugari sartzen hasi ziren gelan eta izugarritzko borroka sortzen hasi zen. Bitartean, haur guztiak, Brook barne, elkartu nituen eta handik irteten saiatu ginen; baina ezin genuen ihes egin, Jean Bleuren alde borroka egitera gero eta zaindari gehiago zetozen-eta.

Denbora batera, poliziak garaituak izan ziren eta ezin genuen ezer egin. Geratzen zen plan bakarra gauzatzeko ordua iritsi zela ematen zuen. Orduan haur guztiei esan nien umezurtz-etxe hartatik ateratzeko plan bat nuela. Haur guztiek nire esana egin zuten eta kanpora atera ziren. Ni bakarrik geratzen nintzen zuzendariaren eta zaindarien aurka. Orduan, gelaren alde batean zeuden dinamita kaxak hartu eta su eman nien.

Etxe guztia goitik behera erori zen, ez zen ezer zutik geratu.

Brook-en egunerokoa


Jonek esan zidan bezala umezurtz-etxetik ihes egin nuen urrutira. Onik eta salbu egongo zen esperantza nuen; baina oso probabilitate gutxi zegoen bizirik ateratzeko. Egun batzuk geroago, umezurtz-etxera bueltatu nintzen, Jon bertan zegoen ikusteko; baina etxea suntsituta zegoen, dena txiki-txiki eginda.

Barrura sartu nintzen eta, bat-batean, Jon ikusi nuen lurrean botata. Hilik zegoen eta, haren ondoan, nire egunerokoa zegoen. Zerbait idatzirik zegoen:

Hau irakurtzen duzunean, gauza askotaz jabetuko zara. Ni zure anaia naiz. Gure gurasoek baztertu egin ninduten, zuria nintzelako. Nik orain dela gutxi jakin dut hori eta zuk ere, seguruenik, hau irakurritakoan jakingo duzu.

Anai-arreben kontua alde batera utziz, nire plana ondo aterako den itxaropena dut; seguruenik, orain bakean eta libre egongo zara. Nire buruaz beste egingo dut zuek guztiok salbatzeko. Agur eta ondo izan, anaia.

Andoni Garate



Jaione Illarramendi

Unaxen lehen abentura

Unax izeneko mutikoa Zumaian bizi zen bere guraso eta anaiarekin. Unaxek 15 urte zituen, ile hori distiratsua zeukan, begi urdinak zituen eta nahiko altua zen. Bere gurasoek Joxe Mari eta Miren izena zuten eta biek adin bera zuten: 52 urte. Unaxek anaia bihurri bat zuen, Mikel izeneko, 10 urte zituena. Unax eta bere familia Zumaia gaineko mendi magaleko baserri batean bizi ziren. Baserria oso handia zen eta terreno handiak zituzten, animalia asko zeuzkatelako.

Egunero-egunero Unax goizean goiz jaiki eta bere aitari laguntzen zion; esate baterako, behiak jaisten. Ondoren, beste animaliei jana eman eta gosaltzera joaten zen anaiarekin batera. Gosalduta ondoren, amak Range Roverrean eramaten zituen ikastolara. Unax ikastolan oso ondo moldatzen zen, batez ere matematiketan, oso gustukoak zituen, berarentzat jolasa besterik ez baizen. Bere anaia Mikel, aldiz, ez zen ikasle ona, eta azterketa gutxi gaintzen zituen, berarentzat ikastola oso aspergarria baitzen.

Unaxek lagun asko zeuzkan; baina batekin, bereziki, oso ondo konpontzen zen. Lagun horrek Jon izena zuen. Bere gelako neska guztiak Jonen atzetik ibiltzen ziren, oso galanta eta goapoa zelako, baina ez zuten ezer lortzen. Unaxen eta Jonen kirolrik gustukoena saskibaloia zen eta jolas orduan beti saskibaloian jolasten ziren, eta ikastola amaitu eta gero ere denbora pixka batean ere jolasten zuten. Ondoren, Unaxen ama ikastolara hurbiltzen zen eta Unax eta Mikel Range Roverrean sartu eta baserrira joaten ziren.

Egunak joan eta egunak etorri Unaxen urtebetetzea iritsi zen; horregatik, bere lehengusuak eta osaba-izebak gonbidatu zituen baserrira, bazkari eder bat egiteko asmoz. Unai oso pozik zegoen, bere lehengusuak etorri zirelako. Postre garaian bere amak eginiko tarta ikusgarria mahai erdira hurbildu zuen eta orduan denek Unaxi Zorionak kantatu zioten. Ondoren, Unaxek tartan zeuden kandela guztiei putz egin zien eta denak txaloka hasi ziren. Amaitzean, Unaxi gustatzen zitzaion garaia iritsi zen, opariak zabaltzekoa. Opari ugari eduki zituen; esate baterako, saskibaloiko saskia eta baloia, bere bideojokorako joko ikusgarria eta beste hainbat gauza. Baina bere osaba Joakinek gutun-azal bat eman zion. Unax oso harriturik geratu zen, zeren eta bere bizitza guztian ez zuen horrelako gutun-azalik jaso. Unax urduri xamar jarri zen eta karta irekitzen hasi zen. Bitartean, bere familia osoa isilik eta begira-begira jarri zen, ea zer ote zen. Unaxek esku artean zeukan karta ireki zuenean, barruan txartel bat ikusi zuen eta bere ezker eskuko atzaparrekin txartela kartatik atera zuen. Unaxek txartela irakurri zuenean, oso pozik jarri zen, txartel hura gonbita bat zelako, Unax eta bere familia bost egunez Londresera joateko. Bere familia guztia, gonbidapenaren berri izan zuenean, oso pozik jarri zen, aita izan ezik. Aitak honela hitz egin zion Unaxen osabari:

—Eskerrik asko opari ikusgarri hau egiteagatik! Baina gonbita hau ezin dugu onartu, zeren eta gure baserrian lan asko baitago!

Hitz horiek esan zituenean, bere anaiak segituan moztu zion:

—Hi! Egon hadi lasai! Guk egingo diagu hire baserriko lan guztia zuek Londresen zareten bitartean. Zuek lan asko egiten ari zarete eta atsedean pixka bat behar duzue. Horregatik zuek joan lasai eta guk egingo diagu.

Hitz horiek entzunda, Unaxen aita oso lasai geratu zen eta bere anaiari baiezkoa eman zion.

Oporraldi hura egun horretatik aste betera zen eta Unaxek gogo handia zuen egun hura ailegatzeko. Egun horietan bere lagunei, batez ere Joni, harrokeria pixka batekin esan zien oporraldi hura izango zuela. Bere lagun guztiek adi-adi entzuten zioten eta, gainera, batzuek inbidia ere bazeukaten.

Egun horietan familia zentro komertzial batera joan zen, hainbat gauza erostera, zeren beren bizitza guztian lehenengo aldia baitzen Euskal Herritik kanpora bidaiatzen zutela. Batez ere, arropa asko erosi zuten, pentsatuz Londresen hotza egingo zuela. Familia osoa poltsaz beteta itzuli zen baserrira.

Egun liluragarriaren bezperan Unaxek gogo handia zuen biharamuna ailegatzeko. Maleta guztiak prest zituzten. Amak Unaxi eta Mikeli ohera joateko esan zien eta berak kexatu egin ziren, ez zeudela nekaturik arazoituz; baina, gero, beren aita agertu zenean, txintik esan gabe hortzak garbitu eta ohera sartu ziren. Baina bere gurasoak egongelan geratu ziren telebista ikusten. Orduan, aitak amari begiratu eta ziurtasunik gabe esan zion:

—Laztana! Ziur al zaude gu Londresen egongo garen bitartean nire anaiak baserria ondo eramango duela? —amak, hitz horiek esan zituenean, apal-apal erantzun zion:

—Bai, maitea! Zu lasai egon zaitez! Zuk baserrian lan asko egiten duzu eta horregatik estresatuta egoten zara; hori zure osasunerako ez da batere ona. Horregatik, lasai egon behar dugu eta, gainera, gure semeekin ere ez gara batere lasai egoten. Zuri eta guri on egingo digu oporretara joateak.

—Arrazoi osoa duzu! Guk gure bizitzan zehar lan asko egin dugu eta sariren bat ere uste dut merezi dugula. Hortaz, hitz hauek esanda, ez daukat zalantzarik: Londresera joango gara! Merezi dugulako!

—Ikusten orain ze ondo zauden; ea, goazen ohera, biharkoa egun luzea izango da eta.

Unaxek ez zuek ia lorik egin gau hartan, eta pixka bat nekaturik zegoen. Unax sukaldera iritsi zenean, bere anaia eta gurasoak jada gosaltzen ari ziren. Aitak, umore onez, Unaxi esan zion:

—Egun on, Unax! Zer moduz egin duzu lo? Ea, etorri azkar gosaria hartzera, laster joan behar dugu-eta Loiuko aireportura! —Unaxek aitak esandakoa egin zuen eta, ezer esan gabe, gosari ederra hartu zuen.

Ondoren, familia guztiak egin beharrekoak egin eta maletak ateko sarrerara hurbildu zituzten. Bitartean, Unaxen aitak garajetik autoa atera zuen eta, gero, Unaxek eta Mikelek aitari lagundu zioten maletak autora kargatzen. Kargatzen ari ziren bitartean, amak ogitartekoak prestatu zituen aireportuan hegazkinaren zain zeudenerako. Handik hamar minutura, Unaxek bere osaba ikusi zuen aldapan gora zetorrela.

—Kaixo, osaba! Hemen ari gara, lan eta lan!

—Kaixo guztioi! Zer, prest al dago dena? Joxe Mari, azalpenak eman behar dizkidak baserriak nola funtzionatzen duen.

—Bai, oraintxe emango dizkiat! Hau bukatuta zegok! Eta zuek joan zaitezte amarengana, laguntza beharko du eta.

Unaxen aitak bere anaiari azalpenak ematen zizkion bitartean, bi anaiak amari laguntzera joan ziren azken ukituak ematera.

Nork bere lanak amaitu zituenean, agurtzeko garaia iritsi zen. Unaxen familiak osabari agur esan eta Loiuko aireportu aldera joan ziren, poz-pozik.

Aireportura iritsi zirenean, Unaxen ama aire konpainia batera joan zen, hegazkineko tiketak hartzera. Bitartean, besteek amak eginiko ogitarteko goxoak jan zituzten.

Deskantsatu zutenean, hegazkinera joan ziren. Unax oso urduri zegoen, lehenengo aldia baitzen hegazkin batean sartzen zela. Amak azafatari txartelak eman eta berak umore honez Good trip! esan zuen. Unaxek, esamolde hori entzun zuenean, dena ulertu zuen, ingelesean oso ona baitzen. Butaketan eseri, gerrikoak lotu eta pilotuaren aholkuak entzun zituzten. Ondoren, motorrak piztu eta hegazkina aireratu egin zen. Unax liluraturik zegoen, leihotik sekulako bistak ikusten baitziren.

Ia bi ordu igaro zirenean, hegazkina Londresko aireportura iritsi zen. Unaxek eta bere familiak autobusa zeukaten zain, beren hotelera joateko. Autobusean zeudela, Unax harriturik zegoen eta amari, pentsakor, esan zion:

—Ama, zergatik ibiltzen dira garraioak, eskuinetik beharrean, ezkerretik?

—Ingelesak horrelakoak dira, Unax! Guk egiten dugunaren kontrakoa egiten dute! —eta barrez amaitu zuen.

Hotelera iritsi zirenean, maletak logeletan utzi eta Londres ezagutzera joan ziren. Bi pisuko autobus gorritan ibiliz, kale guztiak ikusi zituzten. Toki garrantzitsuak ere bisitatu zituzten; esaterako, Big Ben, Saint Paul katedrala, Tamesis ibaia, Picadilly Circus... baina Unaxi eta Mikeli gehien gustatu zitzaiena noria izan zen. Mantso-mantso ibiltzen zen eta, horrela, Londresko erdigune guztiak ikusten ziren.

Konturatu gabe, ia egun guztia pasa zuten kalean. Orduan, autobusa hartu eta beren hotelera joan ziren, asko nekatu baitziren. Afari ederra zuten zain, buffet modukoa. Tripa beteta, laurak ohera joan ziren, lo egitera. Unaxi, ohe barruan zegoela, irribarre handi bat ikusten zitzaion; baina, berehala, loak hartu zuen.

Hurrengo goizean Unax eta bere familia beste toki batzuk bisitatzera joan ziren. Denbora asko egon ziren ibiltzen eta, ondorioz, parke batean atsedenaldira hartzeko gelditu ziren. Bere gurasoak bankuetan zeuden bitartean, Unax eta Mikel futboleko jolastera joan ziren. Horretan ari zirela, mutiko bat gerturatu zitzaion eta, lotsatuta, Unaxi esan zion:

—Can I play with you? My name is Charlie! —eta Mikelek, flipatuta, Unaxi esan zion:

—Hi! Zer esan dik? Ulertu al diok?

—Bai, dena ulertu diat! —eta mutikoari irribarrez erantzun zion:

—Yes, you can! My name is Unax and his name is Mikel —hori erantzunda, hirurak futboleko jolastu zuten denbora askoan.

Unaxi mutikoa oso jatorra eta formala iruditu zitzaion. Charliek, ordainean, Unax eta Mikel bere etxera bazkaltzera gonbidatu zituen. Hori esan zuenean, Unax eta Mikel gurasoengana joan eta amari galdetu zioten:

—Ama! Mutiko jator bat ezagutu dugu eta bere izena Charlie da; oso jatorra eta zintzoa ematen du. Orain arte gurekin futboleko jolastu da eta, horregatik, bere etxera bazkaltzera gonbidatu gaitu. Mesedez, ba al daukagu Charlieren etxera joatea?

—Mmmmm... ez dakit... zuk zer deritzozu, aita?

—Nik utziko diet; baina baldintza batekin: zintzo portatzea. Entzun al duzue, mutiak?

Eta orduan Unaxek eta Mikelek, batera:

—Bai, aita! Eskerririk asko! Nik mugikorra gainean edukiko dut! Gero arte!

Charlieren etxera iritsi zirenean, bi anaiak aho zabalik geratu ziren. Etxea oso handia zen, jolas asko zituen eta Charliek arreba bat zeukan, 7 urtekoa, Emily izenekoa. Bazkaritako ordua iritsi zenean, denak mahaian eseri eta Charlieren amak eginiko lasagna jan zuten. Unaxek eta Mikelek bapo jan zuten; ondoren, Charlieren gelara joan ziren eta bideo jokoan jolastu ziren ordu luzez.

Konturatu gabe, eguzkia desagertu egin zen eta, orduan, Unaxek esan zion Charlieri gurasoengana joan behar zutela, baina Charliek esan zien ea nahi zuten afaldu eta gero kalera atera, festa baitzegoen. Unaxek, hori entzunda, mugikorretik amari deitu zion eta amak baiezkoa esan zion; baina Mikeli ez zion utzi, oraindik gaztea baitzen. Mikel hotelera iritsi orduko, Unax eta Charlie afalduta zeuden jada eta kaleetan barrena ibili ziren. Charliek Unaxi bere lagunak aurkeztu zizkion; Unaxek bezala, lagun asko zituen. *Buffet*-etan ere sartu ziren.

Denborak aurrera egin ahala, Unax ez zegoen batere ondo. Seguruenik, behar baino

gehiago edango zuen eta kale bazterrean botaka zebilen. Bat-batean, gizon altu eta indartsu batek, Unax konturatu gabe, gutun-azal txiki bat sartu zuen zion patrikan, hauts zuri batekin, eta alde egin zuen.

Halako batean, poliziak Charlie, Unax eta bere lagunei kontrola egin zion, ea edan zuten. Unaxi egiten zion bitartean, loak hartuta erori egin zen eta patrikatik gutun-azal bat erori zitzaion. Orduan, polizia serio jarri eta poltsa txiki hura hartu eta esan zion:

—What is this? You are a dealer! You are under arrest!

Unaxi, hori entzun zuenean, aurpegia segituan aldatu zitzaion eta, negar zotinka, esan zion:

—No! I'm not a dealer! I'm innocent! —baina poliziek ez zioten kasurik egin eta furgonetan sartu zuten, polizia-etxera eramateko. Orduan, Charlie Unaxen eta bere familiaren hotelera joan zen, ahal zuen bezain azkar.

Arnasestuka ailegatu zen eta Unaxen familiari gertatutakoa kontatu zion. Unaxen gurasoak, gertaera hori entzunda, oso urduri jarri ziren. Segituan taxi bat hartu eta polizia-etxera joan ziren. Iritsi zirenean, Unax han zegoen, beldurtuta, polizien galderei erantzuten. Poliziek, Unaxen gurasoak ikusi zituztenean, beren semea zegoen salara etortzeko esan zieten. Amak Unaxi besarkada handi bat eman zion eta esan zion dena ondo aterako zela. Poliziak amari galdetu zion ea bere semeak erretzen zuen. Ama oso seguru zegoen bere semeak ez zuela erretzen, oraindik gaztea zen eta. Poliziek, amaren hitzak entzundakoan, beren artean hitz egin eta Unaxi esan zioten:

—You are safe —Unaxek, entzundakoan, pozarren joan zen gurasoengana.


—Aita, ama! Salbu nago! —eta besarkada luze bat eman zioten elkarri.

Lasaitu zirenean, Charlieri eskerrak eman zizkioten laguntza emateagatik. Unaxek eta Charliek elkar besarkatu zuten eta Unaxek esan zion, nahi zuenean, udan, bere etxera etortzeko. Charliek baiezkoa esan zuen.

Abentura honekin bost eguneko oporraldia amaitu egin zen eta Unaxi eta bere familiari Euskal Herrira itzultzeko ordua iritsi zitzaien. Unaxek pena handia zuen Londrestik alde egin behar izateagatik, baina gogo handia ere bazuen lagunei bere abentura ikaragarria kontatzeko.

Hegazkinean zeudela, Unaxek amari esan zion batxilergoa atera eta gero Londresera joango zela, bi urte edo gehiago bizitzera; ahal bazen, bere lagun Charlierekin.

Mikel Orbañanos




Naroa Lizaso

Olerki triste bat eskuetan

Bizitzearen bidaia amaitzeko ordua iritsiko da,
bizipen ugari gordeko ditugu barnean,
garun mekanizatueta eta,
oraindik bizitzeke dutenei utziko lekua.
Gure oroitzapenen sugarrak iraungo ote duenaren kezka,
denok darabilkiguna buruan,
gauzak ongi eginez baretuko dugu;
bihotzak esandakoa eginez, senak aginduz,
aurrerantz jarraituko dugu bidean.
Olerki triste bat dut eskuetan,
nire oroitzapen propioek sortua.
Asko maite izandako pertsoneri agur esan beharrak,
inguruan baina gutxirako ditugunak galtzeko beldurrak,
denak nahastu ditut bertan,
baina nik ez dut olerki triste bat nahi,
bizitzeke dudana bizitzea baizik,
irakatsi didaten moduan,
unean unekoari barre eginez,
munduari nire irribarrea oparituz,
agur esateko momentua iritsiko den arte.

Alazne Arruti



Eider Zubeltzu

Ipuin bat ordubetean izkiribatzeko

Ipuin bat ordu betean idazteko beharrezkoa duzun tresna —ohiko bolaluma eta papera ez ezik— ordu bat noiz pasa den adieraziko dizun kronometro digital bat da, ordu horretan denbora guztian eskumuturrean eramango duzuna. Eta ez eseri ipuinari buruz pentsatzen gero: joan zaitez leihora eta begiratu kalean paseatzen dabilen jendeari; komeni zaizu gustuko duzun musika jartzea zeure burua motibatzeko.

Gauzak horrela, joan zaitez zure gelako armairura, jantzi itzazu galtza motz batzuk eta erabiltzen ez duzun nikiren bat, egongelatik irten eta joan zaitez korridoretik barrera sarrerako ateraino. Guztiz konbentzita irten zaitez kalera, korrika apur bat egitera, 30 minutuz. Horrela, burua apur bat erlaxatzea lortuko duzu. Konturatuko zara oraindik 5 minutu eskas igaro direla eta oraindik denbora asko duzula ipuina idazteko.

Berriz etxera bueltatzean, 25 minutu besterik ez dituzula konturatzean, zure bihotza sekulako abiaduran hasiko da taupadaka, estresaren ondorioz. Gorputz guztia izerdituta edukiko duzu; beraz dutxa azkar bat eman beharko duzu. Dutzatik irten eta oraindik izerdia botatzen jarraituko duzu; baina, oraindik 15 minutu geratzen zaizkizula ohartzean, lasaitu egingo zara. Egongelara iristean, konturatuko zara zure telebista berria piztuta utzi duzula. Hartu bolaluma eta orriak eta idatz ezazu: ipuin bat ordubetean izkiribatzeko beharrezkoa duzun tresna...

Oraindik 10 minutu inguru geratzen zaizkizu eta jada hasiera egin duzu. Hori da, hori, momentu euforikoa! Zorionak, beraz, zailena egina baitago eta, ez horregatik bakarrik, zorionak erosi berri duzun telebista plasma berriagatik ere. Momentu batean iruditu zaizu bertan dagoela zure ipuinak behar duena, milaka jende ari baita bertan hitz egiten. Joan zaitez, poliki-poliki, telebistarengana eta zapaldu ezazu albo batean dagoen pizgailua, zure lagun baten etxeko txirrina bailitzan, apur bat lotsatuta.

Har ezazu telebistako mandoa, begiak itxi eta emaiozu botoi bati, zein den jakin gabe. Egin kasu zure senari. Entzun ezazu bertan esaten duten lehenengo hitza.

Teilatu da hitz hori. Gainontzeko kanalek hasperen egin dute, zorte txarra eduki dutelakoan. Kanal mordo bat baitago; baina gehienek bat edo bi bakarrik ikusten dituzte; beste ia denak marjinatuta sentitzen dira, guztiz bakarrik. Luzaro gabe bigarren hitz bat atera beharko duzu. Berriz ere begiak itxi eta beste botoi bat sakatu eta entzun ezazu lehenengo hitza.

Zuhaitz da bigarren hitza. Jadanik ez duzu telebista behar; beraz, itzal ezazu eta jar zaitez lanean, 8 minutu besterik ez zaizkizu-eta geratzen. Aurreko bi hitzek osatutako esaldi bat idatzi beharra daukazu parentesi artean bilduta .

(Egun batean teilatutik erori nintzen zuhaitz batera eta tetraplegiko geratu nintzen).

Ondoren, esaldi bat ondo pentsatu eta, berriz ere, parentesi artean jar ezazu. Honako hau, esate baterako:

(Arratsaldez gertatu zen nire desgrazia, lagun batzuekin ari nintzen futboleko jolasten nire etxe parean eta baloia gure balkoira joan zen. Bila igo nintzen eta baloia handik bota nien baina zuhaitz batean trabatuta geratu zen. Baloi hartu beharra neukan eta, beraz, balkoitik zuhaitzera salto egitea bururatu zitzaidan...)

Bost minutu besterik ez dira geratzen. Ahalegindu zaitez guztiz paperean sartzen. Azkar, zabal ezazu hirugarren parentesia:

(Salto egitean, irrist egin nuen eta lepoarekin adar bat jo nuen; momentu hartan bizkarrezur-reko zuntza guztiz hautsi nuen eta, beraz, garunak emandako informazioak ezin du gorputzera pasa.)

Ireki ezazu laugarren parentesia eta, korrika eta presaka, idatzi aurreko esaldiaren segida:

(Jendea nitaz erruki zen. Egunero baten batek opariren bat egiten zidan edo hitz goxoren bat esan.)

Bi minutu eta erdi besterik ez dira geratzen. Azkar! Laster amaituko zaizu denbora.

(Hasieran asko lagundu zidaten, animoak emanez, eta horrela ere bizimodu normal samarra egin nezakeela ikusarazi zidaten; baina, hori bai, betiere laguntza apur batekin.)

Ireki seigarren eta azken parentesia. Korrika eta presaka idatzi behar duzu, jada bi minutu besterik ez zaizkizu gelditzen-eta. Paragrafo luzeena idatzi beharra daukazu, utzi eskuari apur bat deskantsatzen bost bat segundoz eta segi lanean.

(Hilabeteak pasatzen joan ziren bezala, ni konturatu nintzen gupida gehiegi zutela nirekiko; jada nire ezintasuna nire gain hartua neukan eta, nire familiaren eta lagunaren laguntzaz, guztiz normal eta pozik bizi nintzen. Hala eta guztiz ere, jendeak berak baino gutxiago izango bantintz bezala tratatzen ninduen: minusbaliatu hitza barru-barruraino sartua izango balute bezala. Gauza batzuk ezin egin ahal izateak ez nau besteak baino gutxiago egiten; baina, adibidez, jendea gauzak niri galdetu beharrean, beste puntaraino joaten zen besteren bati galdetzera. Honela konturatu nintzen ezinduei lagundu egin behar zaiela eta ez gutxietsi; berek duten ezintasunarekin lagunduz gero, beste edozeinek baino zailtasun gutxiago eduki baititzakete.)

Eta parentesia ixten duzu, ipuinari amaiera emanez, kronometroak alarma jotzen duen une beran.

Iker Lopetegi

15 urte ditut...

15 urte ditut eta adin zoragarria dela diote gehienek... POTRUAK!

Argi dago hori dioten bakarrak hogeita hamar urtetik gorako nostalgikoak direla; beren gaztetako argazkiak begiratzuz eguna pasatzen dutenak, gaur egun dituzten soil-gune horiek tapatzen zituen melena *hippie* hartaz oroitzuz; koadrilarekin goateketan hartutako Schuss guztiak gogoraraziz...

Hau da nik aurkitu dudan hipotesi bakarra: adinean aurrera zoazen heinean, iragenera gehiago begiratzen duzu, eta dituzun oroitzapen guztiak hobeak bilakatzen dira, etorkizuna okerrago ikusten baituzu. Hipotesi hau ezin dut ziurtatu, urte gutxi bizi izan bainaiz (oraindik sasoiko nago). Baina ez dut beste arrazoi posiblerik ikusten jendearen hitzak justifikatzeko.

Nire ikuspuntua azaltzea gustatuko litzaidake, bizitzen ari naizen adin beti zail eta kezkarri honi buruz...

Zergatik diodan 15 urte izatea ez dela zoragarria? Beno, duela ia urtebete (bederatziz hilabete eta hamalau egun, zehazki) bete nituen 15 urte, eta gauzak ez zaizkit oso ongi joan orduz geroztik. Baina xehetasunak argitu aurretik, nire burua aurkeztu nahiko nuke.


Andoni Garmendia izena dut eta, dakizuen bezala, hamabost urte ditut. Azpeitiarra naiz eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako azken mailan, laugarrenean, nabil. Etxean nire bi anaiekin bizi naiz, bat hamabi urtekoa eta bestea hemeretzikoa. Etxeko egoera ez da oso ona, anaiok gure artean beti borrokan ari baikara. Horregatik pentsatzen dut nire gurasoek, nahiz eta askotan berekin ados ez egon, pazientzia handia dutela, ez baitzaie loteria tokatu semeekin.

Nire lagunei dagokienez, beti izan ditut alboan, baina azken aldian arazo batzuk izan ditugu koadrilan: neskak existitzen direla konturatu gara eta... Nik neskalaguna dut, eta bi hilabete daramatzagu elkarrekin.

Aurrez aipatutako gaia berreskuratuz, hamabost urte izatea batere eroso ez dela azalduko dizuet: garai berezia da, non zure gorputzean aldaketa asko sumatzen dituzun eta bizitza beste era batera planteatzen hasten zaren. Horretarako, lehengo astean gertatu zitzaizkidan gauza batzuk kontatuko dizkizuet, ni bezalako 15 urteko mutil batek izan ditzakeen arazo batzuk ikusteko.

Otsailak 27, astelehena

Goizero bezala, zortzietarako jaikia nintzen. Hamar minutu iraun nituen nire Nesquik zerealak esnearekin jaten. Ondoren, komunera joan nintzen hortzak garbitzera, eta orduan ere goizerokoa: ispiluaren aurreko momentua. Gazteok konplexu



Alazne Arruti

asko izaten ditugu itxura fisikoarekin; gaur egungo geure idolo gehienak fisikoki estereotipo perfektuak direlako izan daiteke. Edota adin honetan besteek zutaz zure itxuragatik aurre-juzkuak izan ditzaketelako. Nire gelan jende asko dago udaran hondartzara joaten ez dena, zuriegi dagoelako edo bere gorputza gustatzen ez zaiolako.

Ispilura begiratzean, itxura txarreko ikusi nuen nire burua: grano gehiago aurpegian, pijama altxa eta, gaur egun esaten den bezala, fofu. Goiz-goizetik, triste. Eta oraindik ez zitzaidan ezer geratzen.

Ikastolara iritsi eta lehenengo gauza, eztabaida irakasleekin: jarrera txarra dugula...

Adinaren ondorioetako bat, nire ustez, irakasleek diotenari gero eta jaramon gutxiago egiten diogula da. Izan ere, gaztaroan erreboltariagoak bilakatzen gara eta, edo zer txorakeriagatik, denei kontra egiten saiatzen gara. Goiz hartan nire tutorearekin eztabaida izan nuen, nire noten beherakada zela-eta nire etorkizuna jokoan zegoela esan zidan; baina niri, egia esan, ez zidan batere axola.

—Andoni, orain arte ikasle formala izan zara, eta orain ikasgai batzuk gainditu gabe utzi dituzu. Zer gertatzen zaizu? —galdetu zidan Maialenek.

—Psss... ez dakit —erantzun nion interesik gabe.

—Azkenaldian zurekin hitz egiterik ez dagoenez, emaezu ohar hau zure gurasoei, mesedez, berekin hitz egin dezadan.

Baiezkorik esan gabe, oharra hartu, gelatik irten eta, jolas orduan patiora jaisterakoan, zakarrontzira bota nuen. Nahiko arazo banituen ikastolan; horiek etxera eramaterik ez nuen nahi. Onartzen dut ikasketetan dagoela nire etorkizuna; baina, adinean aurrera noala eta beti aipatu dugun etorkizun hori gerturatzen doan heinean, gutxiago arduratzen naiz beti izan dudana helburua lortzeaz: ikasketak gauzatu... Adin hauetan gauza asko darabilkigu buruan gazteok eta, nire kasuan, azkena ikasketak dira.

Astelehen arratsaldean, ikastolatik irten ondoren, nire lagun Mikel eta Jonanekin herriko frontoira joan nintzen, zigarro pare bat erretzera. 13 urtetatik erretzen dut. Gurasoek beti esan didate uzteko, nire mesederako izango dela; baina nik beti esaten diet, anaiak erretzen badu, nik eskubide berberak ditudala eta hark utzi arte nik tabakoa erretzen jarraituko dudala.

—Zer esan dik foka horrek lehen? —galdetu zidan Jonanek.

—Betiko txorakeriak —erantzun nion zigarroaren kea ahotik irteten zen bitartean.

—Egunen batean flipatu egingo dik puta horrek —esan zuen Mikelek, haserre—. Lehengo ikasturtean bere erruz errepikatu nian. Itzuliko zioat; ikusiko dik.

Beti esan ohi didate nire lagunak eredu txarra direla eta influentzia negatiboa direla niregan. Baina, inork ez daukanez eskubiderik nire lagunak aukeratzeko, berekin ibiltzen jarraitzen dut.

Bigarren zigarro paketea amaitzera gindoazenean, gizon bat etorri zen gugana, frontoian erretzea debekatuta dagoela esanez; ume txikiak zeudela inguruan eta txarra izango zela berentzat kea arnastea. Ez zen lehenengo aldia erretzen uzten ez zigutena. Askotan bota gaituzte parkeetatik erretzeagatik. Baina ziur nago 40 urteko gizon batek 50 zentimetroko puru bat erreko balu parkeko kolunpioetan eserita, inork ez liokeela ezer esango!

15 urte izatearen desabantiletako bat da jende askok ez gaituela heldu gisa ikusten, oraindik umeak garela uste dutelako.

Otsailak 29, asteazkena

Hasieran aipatu dudan bezala, neskalaguna dut. Aintzane izena du eta denbora dezente daramagu elkarrekin. Oso neska lirain eta alai da, eta fisikoki erakartzen nau. Baina ongi konpontzen gara, elkarren laguntza dugulako, gure kezkek eta arazoak azaltzeko.

Erlazioaren gauzarik txarrena da ezkutuan ibili behar dugula. Izan ere, Aintzanerekin ibili baino lehen, beste neska batekin ibili nintzen duela urtebete eta, nire borondate on guttiz, gurasoei kontatu nien. Berek izugarrizko haserrea harrapatu zuten: ezin nuela hain gazte neskekin ibili, gazteegia omen nintzen hain erabaki garrantzitsuak hartzeko... Horregatik ez diet ezer kontatu oraingoan gurasoei.

Asteazken arratsaldero bezala, Aintzanerekin geratu nintzen:

—Kaixo, politta! —agurtu nuen eta bi musu eman nizkion—. Zer moduz eguna?

—Gaizki —erantzun zidan, aurpegi triste—. Oraintxe egon naiz Olaiarekin eta oso gaizki dago. Zer gertatuko ote zaio?

Olaia gure gelako neska bat da, eta azken asteak oso umore txarrez eta deprezioarekin darabiltza; komunera negar egitera sartzen da eta inork ez daki zergatik...

Beno, nik bai. Olaia ez da oso neska ederra: nahiko gizena da, betaurreko biribil-biribilak daramatza, aparatu handi bat ahoan... Horregatik, gelako mutil askok adarra jotzen diote. Egia esanda, iraindu eta umiliatu egiten dute. Eta, azkenaldian, nire taldekide batzuk interneteko sare sozial bateko chat-aren bitartez irain bortitzak bidaltzen egon zaizkie eta mehatxu egin diote, bera biluzik agertzen den argazki bat internetera igoko dutela mezuen berri ematen badu. Ez dute horrelako argazkirik, baina oso kabroiak dira... beno, gara, ni ere tartean egon bainaiz. Horregatik ez diot ezer esan Aintzaneri.

—Lasai, Aintzane! Agian, hilekoa izango du —esan nuen pentsatu gabe—. Pasako zaio.

Martxoak 2, ostirala

Asteke egunik onena, dudarik gabe. Aste osoko arazo eta iskanbila guztiak ahaztu eta aste-bukaerara begira jartzeko ordua: gauez parrandara irten, zertxobait ligatu...

Asteburu horretan, gainera, litro batzuk egitekoak ginen herriko plazan, azterketak bukatu genituela ospatzeko. Irrikitan nengoen larunbata iristeko; beraz, arratsaldeko laurak puntuan zirenean, koadrilakoekin ikastolatik irten eta litroak egiteko alkohol botilak erostera joan ginen. Adinik ez geneukanez alkohola erosteko, Jonanen anai zaharrari eman genion dirua, eskatutakoa erosteko eta, gurasoak ez konturatzeko, geure lokalean gorde genituen botilak. Bertan egin genituen nahasketak.

Zortziak aldera etxera joan nintzen eta, atea ireki bezain laster, ama mutur aurrean nuen:

—Ez al didazu zer edo zer esan behar? —galdetu zidan, haserre bizian oihu eginez.

—Bai. Horrenbeste oihu egiten baduzu afoniko geratuko zara eta ni gor —erantzun nion.

Banekien astelehenean eman behar nion oharrari buruz ari zitzaidala.

—Dibertigarria iruditzen al zaizu? Zure andereñoak deitu dit, eman behar zenidan ohar bati buruz galdezka. Nirekin hitz egin nahi omen du zure jarrera tamalgarria dela eta.

—Niri ez zait tamalgarria iruditzen

—Andoni, zer gertatzen zaizu? Espabilatu! Zure ikasketak oso garrantzitsuak dira etorkizun oparoa izan nahi baduzu. Badirudi azkenaldian ez zaizula ezer axola! Inuzentea dirudizu!

—Badakit ikasketak garrantzitsuak direla, baina badaude gauza gehiago munduan, joder! —berotzen hasia nintzen.

—Esadazu gauza bat garrantzitsuagoa dena —esan zidan, begietara begiratu.

Erantzun posible asko pasa zitzaizkidan burutik: lagunak, neskalaguna, larunbateko parranda...

Baina ez nuen ezer esan.

—Entzudazu Andoni. Nik ere izan ditut 15 urte. Badakit adin zaila dela, gorputzean aldaketa asko sumatzen direla, umorea erraz aldatzen dela, mundu berri bat sortzen dela dirudiela gauez parrandara irtetea... Pubertaroa bizitzan izango duzun zikloetako bat da. Ziklo horiek politak edo tristeak izan daitezke; baina benetan garrantzia duenean zentratu behar duzu.

Bira erdia eman eta logelan sartu nintzen, ateari izugarrizko danbatekoa emanaz. Haserre nengoen, banekielako amak arrazoi zuela.

Nire buruarekin hitz egiten hasi nintzen:

Agian, ez naiz bide onetik joaten ari. Nire burua kontuan hartu behar dut, eta horrek ikasketetan zentratu beharra eskatzen dit. Baina gorputzak, berriz, denbora ahal

dudan hoberen aprobetxatzeko lagunekin eta dudan sasoiak gozatzeko esaten dit, gero gerokoak etorriko direla. Hau komeria!

Logelan pentsakor geratu nintzen. Aita lanetik etxera etorri zela sumatu nuen eta amak nola azaltzen zion izan genuen eztabaida. Orduan, aitak oihukatu zidan:

—Hilabeteko aste-bukaeretan kalera irten gabe geratuko haiz!

Amorru bizian jarri nintzen. Baina, hurrengo goizean, gurasoak lo zeudela, etxetik irten nintzen eta Jonanen etxera joan eta han pasa nuen arratsaldea. Gauean lagunekin ibili nintzen eta igande goizeko bostetan iritsi nintzen etxera izugarritzko atxurrarekin, eta botaka egin nuen komunean. Hortik aurrerakoa ez dizuet azalduko, ez baita oso polita, imajinatzen duzuenez.

Nire lehengo asteko komeriak ikusita, ez zait normala iruditzen 15 urte izatea zoragarria dela esatea. Nire kasuan, behintzat, ez.

ANDONI GARMENDIA

—Hauxe duk hire adinarekin ikastolarako egindako idazlanetako bat. Zer iruditzen?

—Nahiko ongi dago —erantzun du utzikieriaz.

—Beraz, ados al hago hemen idatzita dagoenarekin?

—Gauza batzuekin, bai.

—Begira, seme, gauza bakarra esango diat: bizitza ez duk aldatzen zenbaki bategatik. Egunerokoa bizitzen ari haizen bitartean, esperientzia irabazten joaten haiz, bizitza osoan zehar sortzen diren egoerei aurre egiteko. Horiek zoriontsuagoak edo tirabiratsuagoak izan zitezkean. Eta, azken finean, pubertaroa egoera horietako bat duk eta seguru nagok aurre egingo dioala, nik egin nion bezala.

—Ongi da, aita. Ulertzen dut.

Seguru nago ez didala ulertu, nik 30 urte behar izan baititut azaldu diodana ulertu ahal izateko. Entzun ere ez dit egin, seguru. Berdin dio; berak ere ulertuko du hemendik urte batzuetara, bere kabuz.

—Laburtuz, Alex, oker nenbilela! Orain 45 urterekin pagatu egingo nitek hire sasoi izateko, gerribuelta batzuk egiteko diskotekan... Eta neska guztiak nire atzetik izango nizkiake.

—Mesedez, aita, mesedez.

—Ja, ja, ja, ja!

Xabier Makazaga

